

Euskararen Geografia Historikoa

Euskararen geografia historikoa – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2007

56 or. ; 22 x 22 cm. (Euskara Mintzagai; 1)

ISBN 978-84-_____

1. Euskara-Normalizazioa. I. Euskadi. Kultura Saila. II. Izenburua (gaztelania).

Argitaraldia / Edición	1.a, 2007ko _____ / 1. ^a , _____ 2007
Ale kopurua / Tirada	1.500 ale / 1.500 ejemplares
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco Kultura Saila / Departamento de Cultura
Diseinua eta azala	Antton Olariaga
Maketazioa	Junkal Motxaile
Argitaratzailea	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Internet	www.euskadi.net
Inprimaketa / Imprime	_____
ISBN	978-84-_____
Lege gordailua / Depósito legal	_____

Adolfo Arejita
Ander Manterola
Segundo Oar-Arteta



Euskararen Geografia Historikoa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

AURKIBIDEA

1. Euskal hizkuntzaren jatorriaren enigma	9
2. Euskara Europako hizkuntzen sailkapen barruan	10
3. Euskararen banakotasuna	14
4. Besteena hartu norberea galdu barik	16
5 Euskara bat ala gehiago?	17
6. Beste hizkuntzekin ustezko senidetasunak	18
6.1. Euskara eta iberiera	18
6.2. Euskara eta kaukasiar hizkuntzak	20
6.3. Euskara eta beste hizkuntza batzuk	21
7. Euskararen antzinako hedadura toponimia eta arkeologiaren argitan	22
7.1. Akitania	22
7.2. Pirinio mendien alde biak	24
7.2.1. Pirinioez hegoaldea	24
7.2.2. Pirinioez iparraldea	26
7.3. Ebro ibaiaren inguruak	27
8. Euskarak jasan dituen eraginak	27
8.1. Hizkuntza zelten eragina	27
8.2. Latinaren eragina	28
8.2.1. Hedatzeko moduak eta inguruneak	30
8.2.2. Hitz maileguak gaika	32
8.3. Beste eragin batzuk	35
9. Erromantze-hizkuntzen eragina	36
10. Dialektoak edo euskalkiak	37
11. Euskararen lekukotasunak Erdi Aroan	39

12. Lekukotasun historikoak euskararen geografia baterako	41
12.1. Nafarroako Erresuma	42
12.2. Arabako herrialdea	44
12.3. Euskara Errioxan eta Burgos iparraldean	46
12.3.1. Errioxa	46
12.3.2. Burgos iparraldea	48
12.4. Euskara Enkarterrian	49
13. Euskaldunak erbestean	49
14. Euskara normalizazio bidean	50
<i>Bibliografia</i>	53
<i>Ilustrazioen iturriak</i>	55



1. EUSKAL HIZKUNTZAREN JATORRIAREN ENIGMA

Euskararen jatorriaren inguruan den lehenengo auzia, ikertzaile eta jakingurako askorentzat, hau da: nondik dator euskara? Zein ote da gure hizkuntzaren jatorria? Itauna zehaztasun gehiagorik eginda: nola agertu da “euskara” deritzagun hizkuntza hau Europaren sartaldeko bazter honetan, Garona eta Ebro ibaien bitarteko lurraldean? Gaurko begiz ikusita, Euskal Herria deritzan lurraldean oraindik bizirik dagoen hizkuntza banako hau nondikoa ote da?

Galdera horren atzean dagoen auzia korapiloz betea da benetan. Izan ere ez zaio euskal hizkuntzari senide edo ahaide jakinik ezagutzen, ez hurrean ez urrunetan. Aspalditik sortu eta garatu diren hipotesiek ez dute oraindino argirik ekarri auzi honi buruz.

Euskararen inguruan dugun bigarren auzia euskararen gaur arteko iraupenaren gainekoa da. Zelan jadetsi ote du hain luzaro bizirik irautea, antzinate zaharren lausopean galtzen diren denboretatik gaurdaino? Bien bitartean zergatik aldendu dira zeharo inguruko beste hizkuntza zahar guztiak, batzuetan arrastorik ere utzi barik, eta hizkuntza batzuk seguruenik euskarak baino hartzun gehiago zituztenak?

Euskarak gorabehera edo uholde historiko guztietatik bizirik irtete hau esplikatze teorian bat baino gehiago ipini dira mahai gainean.

Bat haxe: Neolito garaian, indoeuroparrak Europan zehar zabaltzen joan ziren, eta nekazaritzarekin batera, euren hizkuntzak eta kulturak nagusitzen. Ekialde Erdetik sartalderantz, Europarantz, geldiro-

geldiro hedatzen joan ziren herri horiek. Artzaintza, agian, aurretik ere ezaguna zatekeen Europan, baina indoeuroparren etorrerarekin basoak gutxitzen eta luberriak ugaritzen joan ziren: “Neolito garaiko deforestazio nagusia” esan izan zaio fenomeno horri.

Baina euskaldunak, edo horien aurretikoak, Europako kontinentearen sartalde bazterrean bizi ziren, Europa erdialdeak eta ekialdeak jasan zituzten inbasioetarik urruntxo. Horregatik beharbada, indoeuropar kulturako nekazariekin gutxi nahasta zitezkeen. Agian hori izan daiteke euskal hizkuntza zaharrak bizirik iraun izanaren arrazoia.

Posible da, indoeuroparren etorrera aurretik, antzinako euskara edo protoeuskara Europa erdialdean ere zabaldurik egotea. Hala defenditu du oraintsu Theo Vennemann Alemaniako ikertzaileak: euskaldunak omen dira “die Ur-europäer”, paleoeuroparrak, eta toponimia-erro zaharren batzuek horretarako bidea ematen ei dute.

Beste arrazoi batzuk ere eman dira.

Batzuen ustez, euskal lurraldea biztanle-multzo trinko samarrez horniturik egongo zen Neolito garaian. Trikuharrien kopururik handiena Pirinio mendietan dugu, kasurako. Artzaintza izango zen orduan ere horko jarduera nagusia. Lurralde horretan bizi zen jendea, bestalde, nahikoa sakabanaturik bizi izango zen. Bai artzaintza eta bai biztanleen banakuntza bizibide baten iraupenari eusteko baldintza ezagunak dira. Beharbada horrek lagunduko zion euskarari hartzunen ezbainetan irauten (T. Aranzadi).

Argudio hori sendotzera beste arrazoi batzuk ere ekarri dira, lurraldearen orografiaz eta biztanleen ekonomiaz zerikusia dutenak: euskal lurraldea, zati handi baten behintzat, menditsua da, eta bestetik, ondasunez urria eta komunikabidez gaizki lotua, erromatarrek etorri aurretik behintzat. Baldintza horiengatik guztiengatik halako bakartasun egoeran gertatuko zen lurralde hau.

Erromanizazioaz loturiko beste argudio bat: erromanizazio-prozesua ez zen osoa izatera heldu Euskal Herrian, eta Erromatar Inperioak lur jo zuenean etenda geratu zen prozesu hori. Hori dela eta lehen baino bakartuago gertatuko zen euskal lurraldea, oraindik ere bere hizkuntza eta bizimoduari eusten ziela.

Iberiar Penintsularen iparraldean, sartaldeago, beste gizatalde eta leinu batzuk izan ziren, euren hizkuntza eta kultura bereziak zituztenak; batzuek indoeuropar jatorriko hizkuntza zeltak zituzten (galaiko-lusitanoak) eta beste batzuek beste jatorri batekoak (kantabiarrek, asturiarrak, iberiarrak). Kantabriak eta Asturiasek Euskal Herriaren antzeko orografia dute: menditsuak dira; trikuharriak ere badira. Hala ere, erromanizazio garaian galdu zituzten euren hizkuntzak, aztarren gutxi utzita. Euskarak iraun egin zuen ostera.

Labur esanda, euskara dugu Europa osoan, gure Aroa baino lehenagotik datorren eta indoeuropar hizkuntzen erasotik salbatu zen hizkuntza bakarra, eta Europa sartalde guztian latinaren eta erromantze-hizkuntzen uholdeari eutsi zion bakarra.

Koldo Mitxelenaren ustean, bizirik iraute horrek zerikusi estua eduki behar du euskara egituraz beste hizkuntzetatik guztiz diferentea izatearekin; beste jatorri batekoa izatearekin, hau da, auzo-hizkuntzekin etorkiz zerikusirik ez edukitzearekin. Hala ere, iberiera eta

etrusko hizkuntzak ere guztiz galdu ziren erromatarren hedatzearekin, hizkuntzok latinarekin loturarik ez zutenak izan arren.


Euskararen antzinatasunera bihurturik, uste da euskara, kaukasiar hizkuntzak eta agian beste bakanen bat indoeuroparren aurretiko egoera baten hondarrak direla, eta gero nagusituko ziren hizkuntza-familiak hedatu baino lehenagoko egoera islatzen dutela moduren baten (A. Tovar).

Esan dezagun, indoeuropar uholde horiekin bateratsu zabaldu zirela beste zibilizazio-hizkuntza boteretsu bi ere K.a. II. milurtekoan: txinera eta adar semitikoa osatzen duten hizkuntzak (arabiera, aramearra, etab.). Europan lez, Asia Urrunean eta Ekialde Hurbilean, eta Afrika iparraldean herri eta hizkuntza-uholde horien indarrez aurretik lurralde horietan egiten ziren hizkuntza zaharrak bazterturik eta galbidean gertatu ziren, eta lurralde bakartu jakin batzuetan izan ezik, beste guztiak aldendu ziren.

Antzinatean euskara, sustraiturik dagoen eremuan, iberiera eta indoeuropar hizkuntzen artean inguraturik geratu zen.

2. EUSKARA EUROPAKO HIZKUNTZEN SAILKAPEN BARRUAN

Hizkuntzalarien artean –eta hizkuntzazale askoren artean ere bai– aspaldiko gogoa eta kezka izan da, ezagunak diren munduko hizkuntza guztiak familiaka sailkatu eta batzekoa: hizkuntzen artean diren, edo izan daitezkeen, antzekotasun eta diferentziak aztertu, eta horren arabera senidetetasunak edo hurbiltasunak



1. Indoeuopar hizkuntzen zuhaitz genealogikoa. Euskara eta beste euopar hizkuntza banakak ez daude bertan.

zehaztu, zuhaitz genealogiko baten irudira. Horrela, finkatu daiteke zein hizkuntza den gurasoa eta zein ostekoa, zein den aurretikoa eta zein ondorengoa. Aztertzaile hauen iritzian, genealogia da balio funtsezkoena eta, ondorenez, familia berekoak diren hizkuntzak baino ez dira senide izango.

Baina hizkuntzen artean izaten dira beste modu bateko ahaidetasunak ere. Odoleko senide izan barik, auzoko izatetik datozen lotura edo kideatasunak. Badira urruneko ahaidetasunak ere; esaterako, protohistorian enbor beretik sortu ziren hizkuntzak, baina denbora luzean aparte bizi izanik, elkarren antzak galdu edo lausotu zaizkienak. Hori izan daiteke finlandiera eta hungariera hizkuntzen kasua.

Badira beste era bateko loturak ere hizkuntzen artean: jatorriz diferenteak izanik, luzaroan elkarren auzo izan eta harreman estua izan dutenak. Eta hala, mailegu bidez batak besteari sano eragin dietenak. Euskara eta iberieraren kasua izan daiteke agian? Ez dakigu garbi. Baina euskarak latinari dion zorra izan daiteke adibide argiagoa seguruenik.

Gure Aroa hasi aurreko bigarren milurtekoan zabaldu zen Indian eta Europan barrena hizkuntza-multzo inportante bat. Lurralde horien jabe egin ziren herriak «indoeuropar» izenaz ezagutzen dira. XIX. mendearen hasieretan, linguistika konparatiboa garatu zen urteetan, hizkuntza klasiko zahar batzuen eta moderno batzuen artean parekotasun handiak zeudela frogatu zuten hizkuntzalariek, eta hortik hasi ziren galdetzen ea jatorri berekoak izango ez ote ziren. Batez ere Indian egiten zen sanskrito zaharra aztertzen hasi zirenean konturatu ziren zenbait hizkuntzaren arteko antzekotasunez; batez ere Europako hizkuntza klasikoekin (grekoa eta latina).


Eta hala, metodologia zehatza aplikatuz, konparantzak egiteari ekin zioten, batez ere lexiko eta gramatika mailan.

Hizkuntzen konparatze-saio horietatik ondorio hau atera zuten: lege finko eta irautezkoak dituztela hizkuntzek euren garapenean, hizkuntza bakoitzak bere eboluzioan lege jakinak jagoten dituela, alegia. Eta pentsatu zuten, legeok ikasiz eta aplikatuz, hizkuntza historikoen antzinagoko estadioetara heldu zitekeela: mende zaharragoetan hizkuntza batek zukeen morfologia-egitura zein zen jakitera. Bide horri jarraiturik senide diren hizkuntzen antzinako egitura bakar hura ezagutu zitekeela uste zuten: protoindoeuropar zaharraren egitura finkatzea zen haien ametsa.

Gerora ikusi da konparatisten ametsok muga batetik gora gainditu ezinak zirela; berreraikitze ahalegin horretan, puntu batetik urrunago joatea ezinezkoa zela, are gutxiago, dokumentazio idatzien faltaz.

Indoeuropar hizkuntzak multzo bitan banatzeko ahalegin teorikoa egin izan da, 100 zenbakiaren kontzeptua zelan adierazten duten irizpidetzat harturik: *satem* multzoa batetik (iraniarra eta indiarra barru hartzen dituen), eta *centum* multzoa bestetik (latina, grekoa, hizkuntza zeltak eta germanikoak barru hartzen dituen) bereizi izan dira.

Indoeuropar hizkuntzak bata besteagandik guztiz urrun dauden lurraldeetan egiten dira, eta baldin antzekotasun garbiak badira euren artean, enbor beretik sortuak direlako da, ez geroagoko elkarreraginen ondorioz. Hala, esaterako, tokhariera, orain mila urte Txinako bazter baten egiten zena, *centum* multzokoa zen, eta eredu horretako beste hizkuntzetatik milaka kilometro askotara urrundurik zegoen.



2. Indoeuopar eta indoeuopar ez diren hizkuntzen banaketa.

Indoeuopar familiako Europako hizkuntzen sailkatze nagusia honela egin dute: grekoa, italiar hizkuntzak (latina, eta beretik sortuak diren italiera, gaztelania, frantsesa, katalana, galego-portugalera, errumaniera), hizkuntza zeltak (gaiera, bretoiera, galesa, zeltera hispaniarra...), germaniar hizkuntzak (alemanaz gainera, ingelesa, daniera, nederlandera, suediera...), eslaviar hizkuntzak (errusiera, serbokroaziera, bulgariera, poloniera...) eta baltikoak (letoniera, lituaniera).

Indoeuoparrak etorri aurretik ziren hizkuntzak ia guztiz aldendu ziren; euopar lurraldean nagusitu ziren populu eta jendetza berriek, modu batera edo bestera, euren hizkuntzak ezarri zituztelako. Indoeuoparren aurretiko hizkuntzen artean, gutxi-gutxi izan ziren iraun zutenak: etruriera –latinak K.a. I. mendean aldenarazi zuena–, iberiera, Hispaniar Penintsulan egiten zena –hau ere latinaren etorrerarekin laster hondatuko zen–, fino-ugriar adarra eta, azkenik, euskara.

Labur esanda, Europako kontinentean barrena gertatu zen lehenengo hizkuntza-uholdearen ondoren, indoeuropar enborreko hizkuntza-familiak nagusi gertatu ziren.

Europak jasango duen bigarren hizkuntza eraso nagusia erromanizazioak eta latinizazioak berekin erakarriko duena da gure Aroaren hasieretatik aurrera: hizkuntza-berdintze prozesu hori, latinaren bidez oso gertatu ez zen lekuetan ere, haren ondoko hizkuntza erromanikoen bidez burutuko da geroago.

3. EUSKARAREN BANAKOTASUNA

Euskara, berdintze-eraso horretatik onik irten zen, guztiz ez bada neurri baten behintzat, eta halaxe gelditu zen indoeuroparren lurralde zabalaren barruan isla modura, indoeuropar aurreko hizkuntzen aztarren eta lekuko bakar gisa mendebaldean. Horregatik deitu izan zaio behin baino sarriago “isla-hizkuntza”, esan nahi da, hizkuntza bakar eta bakuna.

Lehen uholdeko indoeuropartzea eragin zuten zeltak lur bila etorriak ziren. Erromatarren etorrera gudaroste bidez gertatuko da: lurraldeen jabe eginez gainera, euren administrazioa ezarri eta eratuko dute lurralde horiek gobernatzeko.

Euskarak uholde bion erasotik salbu irtetea lortu zuen, artean baino lurralde txikiagoan izan arren. Erromanizazioaren eraginpean bizirik irautea lortu bazuen euskarak, egoera berrira, kultura berrira egokitzen jakin zuelako izan zen. Galdu ez zen egin, baina latinaren kutsu handia jaso zuen: kontzeptuetan

eta lexikoan, eta zenbait morfologia-egituratan ere bai. Lexikoaren aldetik, nekazaritza, olagintza eta kristau-erlijio esparruak aipa daitezke garrantzizkotzat. Batek baino gehiagok esan du, euskarak bizirik badirau erromanizazioaren ondoren, aldatzen jakin duelako dela, horretarako gaitasuna erakutsi duelako. Hala gertatu ez balitz, galdu egingo zen seguruen.

Euskara, gorabehera historiko guztien gainetik, Europako hizkuntza dugu, europar hizkuntza, beste edozeinek adina eskubiderekin, edo gehiagorekin. Lehen ere hemen zen, orain 3.000 urte ere, erromanizazio ondoren ere hemen zen, eta hizkuntza indartsuagoen eraso guztien gainetik hemen da gaur ere. Indoeuroparren etorrera aurretik egitura eta itxura diferenteak edukiko zituen, guretzat ezagun ez direnak; eta orain, latinaren eta erromantzeen eragin handiak jasan ondoren, egokiturik eta eraberriturik hemen dugu gaur ere.

Hizkuntza zahar guztiak joan dira aldatuz: grekoa, latina, arabiera... Aldakuntzok eta guzti, euskara dugu Sartalde guztian, desagertu den aldi bateko hizkuntzen hondarkin bakarra, baina aldi berean gaitasun osokoa: gizarte baten beharrian eta harreman guztiak bideratzeko gai zen antzina, gai zen Erdi Aroan, eta gai da gaur ere.

Jatorriaren kontura bihurtuta, euskarari beste inongo hizkuntzarekin senidetasunik ez zaio aurkitu. Juan Antonio Mogel idazleak orain mende bi pasatxo honako hitzokin esan zuen: “Euskeriari eztakijo inok arrezkero etorrerarik”. Baditu, izan, beste hizkuntza batzuekin antz batzuk, baina jatorriarekin zerikusirik ez dutenak.

Colin Renfrewek garbi dio oraindik argitzeko dagoela euskararen jatorri kontua: “Europa modernoko euskara

ez da inguruko hizkuntzen senide eta inbentariatu diren beste hizkuntzen antzik ere ez du”, bere hitzetan.

Ikertzaile gehien-gehienak iritzi horretakoak dira, edo uste dute, gaur eskura ditugun datuen argitan, ezin daitekeela halakorik frogatu; edota beste hizkuntzaren batekin lotura edo paralelotasun bat bilatzekotan ere, euren artean legokeen substratu berdin antzina-antzinakoa litzatekeela, milaka urte lehenagokoa.

Gramatika-egitura mailan konparatzen bada euskara beste edozein hizkuntzarekin, ez da bat bera ere aurkitu senidetasuna frogatzen duen berdintasunik. Lexiko arlotik joz gero, hitz edo erro jakin batzuetan iberierarekin bilatu zaizkio antzekotasunak –izan ere hainbat ikerketa egin dira aspaldion hizkuntza biok konparatu nahian–. Baina errazago esplikatzen dira auzotasunez edo mailegu bidez eta ez senide izateagatik.

Oraintsura arte indarrean egon dira euskara Eurasiako hizkuntza zaharrekin lotu nahi izan duten teoriak ere: batez ere kaukasiar hizkuntzekin, baina baita paleosiberiar, fino-ugriar eta indoeuropar hizkuntza zaharrekin ere. Euretariako baten batekin ahaidetasunik bilatzekotan, historiaurrekoa izan beharko luke, izkribu idatzirik ez dagoen aldiren batekoa. Kaukasiar hizkuntzekin uztartzera zuzendu dira ikerketa gehienak. Batzuek gramatika-egituraren aldetik, beste batzuek lexikoaren aldetik, eta azkenez fonema-maiztasunen aldetik ere bai. Tipologia mailakoak dira aurkitu diren kidetasun agerienak; morfologia edo lexiko mailan gauzak ilun daude.

Oraintsuago beste iker-ildo batzuk urratu dira konparatze-ahalegin horretan: giza taldeen biologia eta kultura eboluzioak harremanean ipini nahi izan dira.

Berrogeita hamarreko hamarkadan Arthur Mourantek hipotesi hau aurreratu zuen: euskaldunak ei dira gaur egun Europako biztanlerik zaharrenak eta euren egitura genetiko zaharra, zati bat behintzat, oraindik ere gorde dute, kanpotarrekin izan dituzten gurutzatze historikoak gorabehera. Teoria hau, odoleko Rh negatiboaren faktoreari loturik dago. Euskaldunen artean ugariagoa ei da genetika ezaugarri hau beste gizatalde batzuetan baino. Eta beste genetika ezaugarri mota batzuekin egin diren ikerketak ere hipotesi hau on egitera eta sendotzera datoz (L. L. Cavalli-Sforza).

Denboran honago etorrita, euskarak, lehenengo latin hizkuntzarekin, eta gero hizkuntza erromanikoekin izan duen harremanak ikaragarritzko urratsa utzi du hizkuntzaren egiturari. Elebitasuna zaharra da Euskal Herrian, batez ere hirietan. Latinaren esparruak, haren ondoren erromantzeek beregandu zituzten, eta hizkuntzok mendez mende elkarri eraginez bizi izan dira.

Iparraldean gaskoiarekin, ekialde eta hegoaldean nafar-aragoierarekin, eta hego eta sartaldean gaztelaniarekin izan du euskarak luzaroko harremana. Hizkuntzok auzo izatetik datoz, beraz, aurkitu daitezkeen antz guztiak. Gehiago oraindino: lurralde berean eta neurri baten gizarte beraren ezpainetan erabiliak izan direlako hizkuntzok luzaroan, elebitasun-egoeran.



Talde linguistikoa	Hizkuntza	BAT	BI	HIRU	BURU	BEGI	SUDUR	AHO
Germaniarra	Suediarra	en	tvo	tre	hyvud	øga	næsa	mun
	Ingelesa	wen	tuw	thrij	hed	aj	nowz	mawth
	Alemana	ajns	tsvaj	draj	kopf	auge	nāze	munt
Italikoa	Frantsesa	œ/ə	dø	tRwa	tɛt	œj	ne	buš
	Italiera	uno	due	tre	testa	okjo	naso	boĳa
	Espainiera	uno	dos	tres	kabesa	oxo	naso	boka
Eslaviarra	Poloniera	jeden	dva	tši	glova	oko	nos	usta
	Errusiera	adin	dva	tri	galava	oko	nos	rot
Uraliar-Yukaghirra	Finlandiera	yksi	kaksi	kolme	pāe	silmae	nenae	sū
	Estoniera	yks	kaks	kolm	pea	siln	nina	sū
Euskara	Euskara	bat	bi	hiru	byru	begi	sydyr	aho

3. Hizkuntza batzuen oinarritzko hitzak multzoka.

4. BESTEENA HARTU NORBEREA GALDU BARIK

Hizkuntza batek, beste hizkuntza-familia bateko hitzak beregandu arren eta hitzon kopurua handia izanagatik, ez du galtzen jatorriz edo antzinatik duen berezko izaera, bere osotasuna. Cavalli-Sforzaren hitzetan: “Euskara hondar-hizkuntza baten kasurik miresgarriena da; inguruko lurraldeetan gertatu diren aldaketa guztien gainetik milaka urtetan bizirik irautea lortu du”.

Euskarak, hizkuntza bana-banakoa eta inguruko besteetatik guztiz berezia izan arren, erraztasun handiz beregandu ditu beste hizkuntzotako elementuak, berarekin harremana izan duten neurrian. Hizkuntza “nahastua” da alde horretatik, ez “garbia”.

Euskarak, mende luzeetan latinarekin edo erromantzeekin batera bizi izanaren ondorioz, fisionomia berezia hartu du: hauetatik jasoriko askotariko maileguak

ditu bere sisteman. Maileguok, batez ere hitzetan dira ageriago, baina baita eratorpen-atzizkietan, morfologia-atzizkietan, sintaxian eta esamoduetan ere gertatu dira.

Gogora dezagun, bestalde, euskara-erdaren arteko mailegutza kontrako bidean ere gertatu dela, euskaratik erdaretara, batez ere aspaldiko denboretan. Euskarak auzo izan dituen erromantze-hizkuntzetan izan dukeen eragina, agian apalagoa da osotasunean, baina erromantzeen sorreran erabakigarriago izan zela dirudi. Gaztelaniak eta gaskoiak dituzten zenbait joera fonetiko euskara zaharrari zor zaizkiola behin eta berriz aitortu dute hizkuntzalariek (Menéndez Pidal, J. Allières). Gaztelaniagatik are gehiago esan da: bere sorreran “euskal ezpainetan mintzaturiko erromantzea” ei da.

Erromantzeak sortu aurreko aldietan, euskarak latinetik jaso zukeen eragina berdintsua izango zen hizkuntzaren lurralde osoan, Pirinioez alde bietan. Ez zen hainbesteko diferentziarik egongo Akitaniako eta Iberiako latinaren artean, euskararen izan zezakeen eraginari begira.

Baina erromantzeak garatu eta nagusitu ondoren, hauek euskararen izan dituzten eraginak ez dira modu berean gertatu leku batean eta bestean. Iparraldeko euskarak gaskoiaren eta biarnesaren eragina jasan du, batez ere lexikoaren eta fonetikaren aldetik, baina baita morfologian ere. Eta beranduagoan, batez ere Frantziako Iraultza ondoren, frantsesarena.

Pirinioez beheitian, gaztelaniaren eragina sendo eta trinkoagoa izan da sartaldeko eta erdiko euskal hizkeretan, bizkaieran eta gipuzkeran. Nafarroako hizkeretan, aldiz, nafar-aragoitar erromantze zaharren eragina izan zen lehenik, eta gaztelaniarena geroago.

5. EUSKARA BAT ALA GEHIAGO?

Euskara dialektoetan banaturik azaltzen zaigu hizkuntza bezala, lekukotasun idatziak ageri diren momentutik bertatik. Beste hizkuntza askotan ere hala gertatu da: grekoaren kasua ezaguna da hizkuntza klasikoetan, edota alemanarena modernoagoetan. Erromantzeak eurak ere ez dira funtsean latinaren dialektoak baino, latin arruntetik han eta hemen modu diferentean garatu diren hizkerak, eta aginte politikoak geriza eman dieten neurrian hizkuntza-estatusa jadetsi dutenak. Erromantze guztiak ez ziren horretaraino heldu.

Aurrerago mintzatuko gara dialekto-banaketa, baina euskararen dialektoak direla eta hizkuntzalarien artean behin baino sarriago azaldu da kezka bat. Sorreran euskara bakarra zegoen, ala euskara bi –edo gehiago– elkarrekin senidetuak? Euskal familiako hizkuntza bakarra genuen antzinatean, ala hizkuntza bi, hurkotasunak elkarrenganatu dituenak? Protoeuskara bat bakarra zen, gero euskalkietan bereizi eta bananduko zena?

Itaun horri erantzun diferenteak eman zaizkio. Izan dira hizkuntzalariak, batez ere erbestekoak, funtsean, eta aspalditik, euskara bi direla defenditu dutenak: sartaldekoa, gaur bizkaiera deritzaguna, eta erdialdekoa, zeinen dialektoak liratekeen beste guztiak.

Gaur egun, hala ere, hizkuntzalari gehienak, Mitxelena buru dela, euskal hizkuntza zahar bakar baten aldekoak dira. Protoeuskara delakoak egitura bertsua zukeen, eta euskalki historikoetan diren diferentziak, batez ere morfologia mailakoak, denboraren joanean garatuak dirateke, eta itxuraz handiak diruditen diferentzia batzuk ez dirateke seguruenik horren zaharrak ere.

Arrazoi sendoak daude Mitxelenaren argudioaren alde. Gramatikako adibide bat ipintzeko, bizkaieraren ezaugarri agerietako bat *egin* aditz laguntzailea dugu (subjuntiboan, ahaleran eta aginteran erabilia). Beste euskalkietan aditzeko ezaugarri berezizat hartzen da **ezan* aditz laguntzailea; baina bizkaiera zaharrean ere ezaguna zen aditz hau (*ezazuz*), denboraz desagertu izan bada ere.

Bide beretik, bizkaierakotzat jotzen diren zenbait arkaismo –morfologian dela, lexikoan dela–, erdialdeko euskalkietan ezagunak izan ez arren, euskararen beste bazterrean azaltzen dira sarritan. Hala *azuri* (bat. axuri) bizkaiera bazter baten ezaguna dena, ekialdean ugaria da. Era berean, bizkaieraren bereizgarri den *barri* aldaera barik, *berri* zaharragoa gordetzen da *udaberri* edo *luberrri* lako hitz konposatuetan Bizkaiko leku batzuetan –Orozkon, konturako–. K. Mitxelenak esango lukeenez, hizkuntzaren ertzetan mantendu dira formarik zaharrenak, erdialdean berrikuntza gehiago izan den bitartean.



6. BESTE HIZKUNTZEKIN USTEZKO SENIDETASUNAK

Euskarari azken mendeotan zehar bilatu zaizkion senidetasunen artean, bi dira batez ere hots egin dutenak eta aipatzea merezi dutenak: iberiera eta kaukasiar hizkuntzak.

6.1. Euskara eta iberiera

“Euskaliberismo” izenaren azpian iritzi bi defenditu izan dira historian zehar. Iritzi bata aspaldikoa da. Batzuek zioten antzinatean erromatarrak eta beste jendetzak etorri baino lehen, euskara Hispania osoan mintzatzen zela, hau da, Hispaniako hizkuntza zaharra euskara zela. Beranduago sortua da euskaliberismoaren hipotesi linguistikoa, aurrekoaren bidetik: horien ustez, euskara eta iberiera hizkuntza bera dira jatorriz, hala, euskara iberieraren oinordekoa izango litzateke.

Euskara Hispaniako hizkuntza zaharra eta jatorrizkoa delako iritzia aspaldiko mendeetatik dator, XVI.

mendetik gutxienez, eta horren aldeko, transmisore edo zabaltzaile gertatu dira hainbat kronikari zahar, euren artean euskaldunak, baina baita kanpotarrak ere.

Euskaliberismo hipotesiaren aurrean jakitun batzuk alde eta beste batzuk kontra azaldu dira historian zehar. Iritzi bion artean eztabaidarik garratzenak batez ere XVIII-XIX. mendeetan izan dira. Berez hizkuntzari dagozkion iritziok bestelako interesekin ere nahastu dira batzuetan: foru erakundeak babestu edo ahultzeko ere erabili izan dira inoiz.

Iritzi horren alde XVI-XVII. mendeetan idatzi dutenen artean aipa daitezke: Pedro de Medina sevillarra, Marineo Sículo italiarra, Juan de Valdés, Alonso Venero edo Martín de Viciano, kanpokoen artean. Baina horien aurrez aurre izan ziren beste batzuk bat ez zetozenak; hau da, erromatarrak etorri aurretik Hispanian beste hizkuntza batzuk ere egiten zirela baiesten zutenak: Ambrosio de Morales, Juan de Mariana edo Bernardo de Aldrete, esaterako.

Euskaldunen artean, euskara antzina Hispania osoko hizkuntza izan zela zioten batzuk hauek dira: Esteban

Garibai, Andrés Poza, Baltasar Etxabe, Arnauld Oihenart mauletarra eta José Moret iruindarra; kronikari edo historialariak ditugu batez ere. Baina XVIII. mendetik aurrera, eta gehiago XIX.etik, hizkuntzalarien txanda helduko da.

Lehen euskal hizkuntzalariak apologista kementsu azalduko dira beste iritzi bateko ziren gaztelau jakintsuen aurka. Manuel de Larramendi izango da euskararen antzinatasuna, unibertsaltasuna eta perfekzioa gartsuen defendituko duen euskaltzalea. *De la antigüedad y universalidad del bascuence en España* (1728) izena emango dio bere lehen saioari. Mendearen erdiruntz berriro astinduko ditu euskararen gainean bestelako iritzia zutenak, bere *Diccionario trilingüe* obraren hitzaurre luzean. Kritika garratzok, orduantxe aurretxoan atera zen *Diccionario de Autoridades* obran jalkitako iritzi eta usteei erantzutera zetozen. Gregorio Mayans jakintsua izan zuen hizkuntza-kontuetan kontrako nagusi eta hari zuzenduak dira bere kritiketariko asko. Aurrerago, Henrique Flórez historiagilea ere ez da bat etorriko Larramendirekin puntu batzuetan; ez du onartuko hark bultzatu zuen euskal kantabrisismoaren iritzia; hau da, euskaldunak kantabriarrekin bat egitea, hain zuzen.

Geroago etorriko da Lorenzo de Hervás y Panduro jesuita, harako *Catálogo de las lenguas* (1800-1805) obra erraldoiaren egilea. P. Astarloak eta J. A. Mogelek itzal handiz aipatuko dute jakintsu hori eta euren ideiak defenditzeko horrengan aurkituko dute babesa.

Pablo Astarloa dugu Larramendiren ondoren eta haren bidetik euskararen kausa kementsu defendituko duena, eta lehenik *Apología de la lengua bascongada* (1803) saioaren bitartez. Joaquín de Traggia historialariak

Espainiako “Real Academia de la Historia” delakoak orduan aurretxoan *Diccionario geográfico-histórico* (1802) delakoaren *Navarra* sarrera-hitzaren azpian euskararen inguruan idatzi zuen artikulua izan zen polemikaren sorrarazle. Aldi bertsuan erantzungo dio artikulua horri J. A. Mogel idazleak ere, nahiz hau argitaratzeke gelditu orduan. Juan Bautista Erro eta beste apologista batzuk etorriko dira ondoren. Bai Astarloa, bai Mogel, toponimiaren bidez frogatzen saiatuko dira euskara antzina Penintsula osora hedatzen zela. Euskarazko hitz-erroen bidez argitu nahiko dituzte Hispaniako leku-izen zahar askoren esanahia, mendi, ibai, herri eta leku-izen batzuenak.



5. Wilhelm von Humboldt.

Euskaliberismoaren hipotesiari zientzia-oinarri sendoagoa emango diona XIX. mendean Wilhelm von Humboldt prusiarra izango da. Euskara eta iberiera jatorri berekotzat joko ditu. Horretarako lexikoan eta bereziki toponimiako emaitzetan bilatuko ditu frogagarriak. Beronek alemanez idatziriko obra baten *Über die Urbewohner Hispaniens vermittelt der Vaskischen Sprache*, izenburua irakurri baino ez dago gaztelaniaz: *Los primitivos habitantes de España. Investigaciones con el auxilio de la lengua vasca*. Euskal toki-izenak Hispaniako toki-izen antzekoekin konparatuko ditu, erro berdinak bilatu nahirik. Hala, *(h)aitz* / *(h)atx* erroa legoke *Asturica* eta *Astura* izenen atzean, ‘haitzeko ura’ esanguraz, edota Betikako *Astigi* izen zaharraren azpian. Bide beretik, *(h)iri* / *(h)uri* erroa legoke Betikako *Ulia* izenean, edo erromatar garaiko *Graccuris* eta *Calagurris* hiri-izenen atzean. *Ur* erroa legoke Betikako *Urgia* eta *Urgao* izenen atzean, eta hala beste asko.

Iberiar inskripzioak deszifratu izan direnean (Gómez Moreno) hipotesi hori behera etorri da. Alabaina gaur ere baditu ikertzaile eta defendatzaile sutsuak. Inskripzio zaharrok deszifratu direnean, ikertzaileek hortik atera duten ondorioa da, hizkuntzok inondik ere ez direla familia bereko. Aurki daitezkeen kidetasunak luzaroko auzotasunaren eraginez izan daitezkeela. Euskara ez dela, beraz, iberieraren senide. Antzinatean gerta zitezkeen hitz edo hizkuntza-elementu trukeak, baina ez dago funtsik antzinako euskaldunak iberiarrak edo iberiartuak izan zirela pentsatzeko. Hizkuntzon artean dauden kidetasunen arrazoia izan daiteke, iberiarrak hedatu ziren lurraldean euskal substratua egon zelako, eta ez bestetara.

Euskara eta iberiera senideak zirelako iritziaren funtsa hau zen: iberiarrak Afrika Goienetik sartu zirelako ustea. Eta horrek amets eder baterako bidea irekitzen zuen: hizkuntza kamitiko-semitikoen enborretik sortu ote zen euskara. Tubalismoaren mitoa ere horrekin lotua zegoen.


Hitz baten esanda: hizkuntza bion arteko kidetasun seguruak gutxi baino ez dira guztiz. Teoria hau ez dago gaur oro har aintzat hartua.

6.2. Euskara eta kaukasiar hizkuntzak

Kaukasoko mendikatea, Europa eta Asiaren muga egiten duten mendiek osatua da. Han badira jatorri zaharreko jendetza eta hizkuntza batzuk. Hauek dira ezagunenak: georgiera, megrelo eta lazia, eta svanoa. Euskararekin konparatzeko gehien erabili den hizkuntza georgiera zaharra da, K.o. IV. mendetik izkiriatu izan dena.

Euskara eta Kaukasoko kartveliar hizkuntzen arteko senidetasuna defendatzen duten teoriak oraintsuago sortuak dira. Hizkuntzen tipologiak ikertzen hasi zirenean hizkuntzalariek idoro zuten euskara eta beste batzuk “ergatibo” tipokoak zirela, indoeuroparrak eta beste asko “nominatibo” tipokoak. Tipologiaren aldetik euskara eta kaukasiar hizkuntzak mota berekoak zirela ikusi zen. Hala gorpuztu zen hipotesia, jatorri berekoak izan zitezkeela, eta indoeuroparrak hedatzen hasi baino lehen, handik hona etorri izan ziratekeela euskaldunak.

Fonetika, lexiko eta morfologia alderdiko zenbait paralelismo finkatzera heldu ziren hizkuntzalari batzuk, eta horretatik indartu zen euskal eta kaukasiar



6. Kaukasiar hizkuntzak.

hizkuntzak etorki berekoak direlako hipotesia. K.a. II. milurtekoan Asiatik etorriak izango lirateke euskaldunak, eta hala ekarriko zuten hizkuntza ere, beste ekandu eta lanbide batzuekin batera. Baina egia izatera ere, kaukasiar hizkuntzekin lotzen duen senidetasun horrek antzina-antzinakoa beharko luke izan, Neolito aurrekoa gutxienez.

René Lafon hizkuntzalaria izan zen teoria horren aldeko agerienetarikoa, eta gerora ere izan ditu jarraitzaileak, bai Euskal Herrian, baina baita Georgia eta Errusia aldean ere; besteak beste, Vladimir Zytsar. Hitz-erro zaharrak, zenbaki-izenak, kasu ergatiboaren presentzia, euskal aditz

zaharraren egitura pasiboa eta horretariko beste argudio batzuk erabili izan dira hipotesi horren alde.

Baina hizkuntzalari gehienek, Mitxelena buru dela, ez dute ontzat hartzen kaukasiar tesia. Hango hizkuntzekin konparatzeak ez ei dakar argi berririk euskararen izaera zaharrari eta eboluzioari buruz.

6.3. Euskara eta beste hizkuntza batzuk

Arrakasta gutxiago izan dute, euskara beste hizkuntza batzuekin lotu duten hipotesiek. Izan dira hizkuntzalariak, Mediterraneo inguruko lurralde osoak

hizkuntza-estrato bera zuela uste izan dutenak. Eta horietariko batek –Hubschmid izenekoak– baieztatu zuen euskara hizkuntza-familia aurreindoeuroparren azken hondarkina dela, hau da, euroafrikar eta hispaniar-kaukasiar familiena.

Hizkuntza kamitikoekin ahaidetasuna bilatzen saiatu dira beste batzuk. Hala, euskarak berbere-hizkuntzarekin antzak ei ditu. Beste konexio bat eginez, berbera eta Kanarietako guantxera jatorri berekotzat dauzkate batzuek, eta hala izan dira euskara hizkuntza biokin kidetu nahi izan dutenak.

7. EUSKARAREN ANTZINAKO HEDADURA TOPONIMIA ETA ARKEOLOGIAREN ARGITAN

7.1. Akitania

Pirinioez iparraldera Akitanian euskararen aztarren zaharrak aurkitu dira, lurralde hedatsu haietan euskararen aurretiko bat egiten zela frogatzen dutenak.

Lexiko alderdian euskararen hitz bertsuak aurkitu dira hango inskripzio zaharretan.

Esan da halaber akitaniera zaharra elementu zelta ugariz hornituriko euskara edo protoeuskara bat dela (J. Allières). Gaur egun, dena den, ontzat ematen da akitaniera aldi zaharretako euskara bera dela, edo gutxienez, euskararekin hertsiki loturiko hizkuntza. Edozein kasutan, euskarak iparraldetik eta ipar-ekialdetik izan dituen muga zaharren gainean adostasun handia dago ikertzaileen artean.

Akitania aipatzen duen lehen testu esanguratsua, Julio Zesarren *De bello gallico* da (K.a. I. mendea). Akitaniarrak direla eta hau dio:

“Galia osoa hiru partetan banatua dago: euretariko batean Belgikarrak bizi dira; beste batean Akitaniarrak; eta hirugarrenean, hizkuntza zeltaz mintzo direnak, guk Galiarrak deritzegunak. Hirurok dituzte diferenteak hizkuntza, erakundeak eta legeak. Galiarrak Akitaniarretatik Garona ibaiak banatzen ditu, eta Belgikarretatik Matrona eta Sekuana ibaiek bereizirik daude”.

Gallia est omnis divisa in partes tres, quarum unam incolunt Belgae, aliam Aquitani, tertiam qui ipsorum lingua Celtae, nostra Galli appellantur. Hi omnes lingua, institutis, legibus inter se differunt. Gallos ab Aquitanis Garumna flumen, a Belgis Matrona et Sequana dividit.

7. Julio Zesarren
De bello gallicoren
hasiera.



8. Akitania erromatarren garaian.

Historia eta epigrafia, Zesarrek aipatzen dituen akitaniarrak euskaldunen arbasoak direlako ustea sendotzera datoz. Jacques Allières hizkuntzalariak ere bide beretik baieztatu du: “Zesarren akitaniarrak protoeuskaldunak ziren, euretariko gehientsuenak erromanizatuak izan zirelarik –gaur egungo Gaskonian bizi zirenak–”.

Akitaniar hizkuntza euskararen dialektoa zela frogatzera datoz lurralde hartan aurkitutako inskripzio zaharrak ere: hango hilarrietan aurkitu diren euskal izenak dira testigantzarik garbienak. Latinaren garaiko euskal izenak dira, erromantzeak sortu baino lehenagoko euskararen arrastoak.

Gogoan hartzeko beste datu bat: erromatar denborako hilarri zizelkatuak, latinez idatziak baina euskara aztarren garbiekin, hain justu ere akitaniarren lurlean azaldu dira, baina ez baskoien eremuan. Zergatik hori? Agian, lurralde horretan zegoelako hiri-multzo handiena ere –*Novempopulania* zeritzana.

Jainko edo jainkosa izenak dira hilarrietan ageri direnak; harrigarriro, euskara izen ezagunen antz osoa dutenak. Saint Giron eta Bagnères de Bigorre bitarteko eremuan aurkitu ziren, eta Auskien lurraldean ere bai. Berean guztiz ulergarri diren izenok ageri dira, beste batzuen artean: andere (*anderexo*), ume (*ombe*-), gizon (*cison*), seme (*sembe*), bihotz

(*bihos*), neskato (*nescato*), sein (*semi-*) –eta seniko (*sennico*)–, eta ilurberriko; eta honako adjektiboak: gorri (*-corri* / *-gorri*), beltz (*belex-*), ilun (*ilunno*) edota zahar. Baita *-tar* atzizkia ere (*bontar*, *orcotar*). Inskripzio horietariko bat Zuberoako Atarratzen agertu zen.

Horretatik guztiorretatik ondoriotzat atera da, Pirinioez iparraldera egiten den euskara, erromatar denboran Akitanian egiten zen euskararen ondorengo zuzena dela.

Hilarri-inskripzio hauez gainera, gogoan hartzekoak dira agiri zaharretan dokumentatzen diren euskal izenak, batez ere toponimoak. Izan ere, hainbat euskal jatorriko izen dugu Gaskoniako lurralde horretan. Euskal izenok hainbat ugariago dira gaurko Euskal Herriko mugarantz hurbildu ahala, batez ere Biarnoan eta Pirinio barreneko ibarretan. Hala esaterako, Elinberri, Auchen antzinako izena, Auskien hiri zaharra.

Allièresen ustean, Akitaniako lurraldeetan bizi zen etnia baskoiena zen (gazt. *vascones*), eta hortik datoz ‘baskoi’ eta ‘gaskoi’ izenak (gazt. *vascón*, *gascón*).

Ditugun datu guztietatik segurutzat jo daiteke euskara egin zela Garona ibaira bitarteko lurraldean.

Mitxelena eta Lafon bat datoz, esanez baskoiak eta akitaniarrak hizkuntza berean mintzo zirela, edota gutxienez hizkuntza beraren dialektoetan.

7.2. Pirinio mendien alde biak

7.2.1. Pirinioez hegoaldea

Hegoaldera, Pirinio mendien barreneko ibarretan euskararen eremua noraino hedatzen zen jakiten ez da

batere erraz. Mendiek banatu egiten dituzte populuak gehienetan, baina artzaintza-kulturan elkartze-leku, topagune izan dira betidanik. Artzainak eta abeltzainak mendian batu izan dira mendeetan zehar, eta baita Pirinioetan ere. Biarnesek eta zuberotarrek oraindik ere gordetzen duten “hiru behien zerga” dugu horren frogagarri moderno bat.

Horretatik pentsatu izan da, euskarak aspaldiko mendeetan biziago iraungo zuela Pirinioetako eremu menditsuetan, goietako artzaintza zegoen inguruetan, eta arinago galduko zela, aldiz, beheargoko lautadetan.

Antzinate zaharrean, zelta, erromatar eta geroagoko inbasoreen etorrera baino lehen Pirinio mendi-katearen alde bietan ziren biztanleak euskaldunak zirela esan daiteke, edo, nahiago bada, baskoiak.

Pirinio katearen erdialdeak luzaroago eutsi zion euskal izaerari, ekialdeak baino. Lehenengo, erromanizazioaren eraso sakona jasan zuen, batez ere erromatarrek Osca (Huesca) fundatu zutenetik. Geroago, bisigodoen eta frankoen etorrerak ere izango zuen eragina euskal hizkuntzaren atzeraldian, nahiz populu hauek ziurrenik gutxi sartuko ziren Pirinioen erdi eta sartaldean. Edozelan ere, erromantzearen bultzada gero eta indartsuagoa gertatuko da inguru guzti horretan.

Joan Coromines hizkuntzalaria izan zen lehenengoetarikoa, Pirinioetan euskal erroko toki-izen ugari dagoela baiesten. Ondoren egin diren ikerketek ere gauza bera frogatu dute: euskal jatorriko toki-izenok guztiz ugariak direla, batez ere Aragoi Goienean, baina baita ere Kataluniaren ipar-mendebaldean ere (Aran, Andorra). Hala, *sarri* (baso) errodon toki-izenak ugariak dira, kasurako.

Menéndez Pidakle erromatar garairako finkatu zuen euskararen ekialdeko muga, Lleida, Barbastro eta Osca (Huesca) hiriek markatzen duten lerroa da. Erdi Aroan seguruena lurralde horretako hiri eta herrietan euskara egiten zen latinarekin batera. Erromanizatu ondoren ere, mendialdeko baskoiek euren kultura eta gizarte-egituretan nolabait euren “euskal izaerari” eutsiko zioten.

Pirinio ekialdeko mugak ilunak dira. Hala ere, Kataluniako Pallars eta Ribagorza ibarretan egiten zen hizkuntzaz diharduela, Abadal ikertzaileak uste du X. mende inguruan aldatu zirela hango biztanleak, baina zuzen euskaratik katalanera, bitarteko latinizazio prozesu barik.

Gaur egungo Aragoiko lurraldean biztanle zaharrak euskaldunak zirela erakusten duten ezaugarri asko dira. Toponimia eta izkribu zaharretako lekukotasunak, besteak beste. Gaurko Huesca antzinako Osca


dugu, ilargeteen hiria. Horko biztanleak ere jatorriz euskaldunak ziratekeen; ez dakigu garbi noiz arte, ostera. Hala ere, 1349ko Huescako Udal Ordenantzek nahiko argi aditzera ematen dute, XIV. mendean oraindik ere euskara entzuten zela hiri horretan. Ondoko hau da behin baino gehiagotan aipatu den testu-txatal ezaguna:

“Item nuyl corredor nonsia usado que faga mercaderia ninguna que compre nin verdan entre ningunas personas, faulando en algaravia ni en abraych nin en basquenç: et qui lo fara pague por coto XXX sol”.

Euskara, hebreera eta arabiera hitz egiteko debekua ematen da udal arautegi horretan.

Pirinio kateko biztanleak euskal izatearekin lotzen duten beste ezaugarri batzuk ere badira, hizkuntza ez ezik. Herri-jakintza eta sinesteen aldekoak dira batzuk.

9. Pirinioetako euskara antzinatean. Euskal leku-izenak puntuen bidez seinalaturik daude.



Pirinio guztian hedaturik dago ‘subilaro’ edo gabon enborraren ohitura. Odolarekin zerikusia duten kidetasun biologikoak ere aintzat hartzekoak dira. Beste era batera esateko, hizkuntzaz erdaldundu baziren ere, ekanduz eta odolez euskaldun iraun zuten hango biztanleek.


Pirinio Goieneko toponimiari begiratu bat ematea nahikoa da, hango izen askoren euskal jatorria bistartzeko. Hitz edo hitz-erro zabalduenak hauek dira: *(h)aran*, *(h)arri* / *(h)ar-*, *(h)arro*, *ate*, *bizkar*, *larra* izenak, edo *berri*, *zabal* adjektiboak, edo *-aga*, *-ain*, *-be* / *-pe* atzizkiak. Eredu honetako toki-izenak ditugu: Arriaga, Larraga, Basaran, Arbe, Arbeta, Jabierre, Jabierregarai, Sobrarbe, Arraba, Arranduei, Obarra, eta beste asko.

Oraindino ez antzinara arte, sartaldeko Pirinioetan gaurko Euskal Herria baino haruntzagoko partean ere gorde izan da euskara: Erronkaritik ekialderantz Hecho ibarrean hain aspaldi ez dela ezagutu dira euskal hiztunak.

7.2.2. *Pirinioez iparralde*

Pirinioez iparraldeko parteaz ere datu bertsu edo antzekoak ditugu. Esan daiteke, bada, erromanizazioa goizetikoa izan bazen ere, euskara ez zela berehalakoan galdu. Ditugun datuen arabera, Erdi Aroan oraindik euskara egiten zen Pirinioen erdialdean: XIII. mendean bizirik zegoen oraindik Comminges Goieneko leku batzuetan. Gaskonia Goieneko eskualde horretan, gaurko toponimian ere euskal leku-izenen aztarren argiak daude. Hala esaterako, Larraitx, topografia ere izenaren esanahiarekin ondo egokitzen dela.

Gratacos ikertzaileak aztertu ditu sakon Pirinioez iparraldean erdialdean dauden Comminges eta



Couserans eskualdeak, eta antzekotasun handiak idoro ditu Euskal Herriarekin. Hona hemen batzuk: lurralde bietan dago megalito-monumentu ugari; bietan dira ugariak eguzkiarekin loturiko ikur eta irudiak horma edo muebleak dekoratzeko. Mitologian ere esaunda berak jaso dira bietan. Esaterako, badira eskualde horretan euskaldun ‘laminen’ ahizpa diren izakiak, *hada* delakoak.

Jose Migel Barandiaranek laminak direla eta jaso zuen ipuin batean, berotzen dagoen esnea irakiten hastean, sukaldean zegoen lamina deiadarrez hasten dela, “txurie gora, txurie gora” errepikatuz. Ipuin berbera jaso zuen ikertzaileak Pirinio alde horretan, eta *hadaren* hitzak hauek ziren: “Late, lateto, gori gora”. Euskara galduta egonik ere, *gori gora* hitzek euskal itxura garbia dute.

Gaskonia Goienaren eta Euskal Herriaren artean antropologi eta hematologi alderdian ere berdintasun handiak dira. Sinkronia garbia dago izaera biologiko eta kulturazkoaren artean. Mendialdeko gaskoien gizataldean badira hiru ezaugarri garrantzizko: osagai antropologikoa (0 odol-mota nagusi da), premu-oinordekotza (seme zaharrena da oinordeko) eta gaskoi-hizkuntza (euskararekin kidetasun handiak baititu, batez ere fonetika alderditik). Hala bada, alderdi biologikoan eta kulturazkoan batera jotzen dute Euskal Herriko

eta Gaskonia Goieneko lurraldeek: iragan bera izan dutela esan nahi du horrek. Neolito kultura bat beraren oinordeko dira lurralde biak.

Baina ekanduetan eta antropologian dituzten berdintasunen gainera, toponimiarena gehitu behar da. Aragoiko partean bezala, Pirinioez iparraldeko toponimian ere euskal substratua datza. Esan daiteke, beraz, gaskoi- eta aragoitar erromantzeak euskara mintzo zen jendearen artean garatu zirela.

Etnologia, antropologia eta linguistikaren historiako datuak aztertu ondoren, Gratacos andreak zalantza barik dio: “Il apparait que la montagne couseranaise et commingeoise est véritable *airetèra* (héritière) de la culture basque”.

7.3. Ebro ibaiaren inguruak

Hegoaldetik, Ebro ibaiaz bestaldean euskara noiztikoa den jakiten ere ez da erraz. Beste modu batera galdera eginik: erromatarrek baino lehen baskoiak hegoalderantz noraino hedatzen ote ziren?

Dakiguna da, gaurko Errioxaren erdialdean jatorri zeltako jendetzak bizi zirela, beroiak zeritzenak. Horiek euskal jatorriko jendetzekin muga egiten zuten seguruenik.

Ebro ibaiaren ondoan hegoaldera dugun *Calahorra*, erromatarren *Calagurris*, Pliniok aipatzen duen *Calagurris Vasconum* bera izan daiteke; baskoien Kalagurri. Horrek baskoien lurraldea Ebro ibaiaren inguruetaraino hedatzen zela frogatzen lezake.

Gaurko Errioxaren iparraldea eta Burgos iparraldeko Bureba antzinako autrigoiak ziren. Zilegi da pentsatzea hor ere euskal jatorriko lagunak bizi zitezkeela antzinatean.

Sartaldean, euskal jatorriko jende-taldeak asturiar eta kantabriar leinuak zituzten, euskaldunekin zerikusirik ez zuten beste jatorri batekoak zirenak. Leinu edo jendetza horiek, zeinek euren hizkuntza zuten.

Kantabriarretatik hurbilen bizi ziren jende-taldeak autrigoiak ziren. Horien alboan, Bizkaian Ibaizabal ibaiak muga egiten zuela, karistiar leinukoak bizi ziren, Deba ibarreraino heltzen zirenak. Horien ekialdera barduliarrek. Leinu horretakoek baskoien leinu handiagoarekin muga egiten zuten ekialdean. Arabako lurtean, uste da gaur Trebiñu dagoen lekuan –latinez *Trifinium*– zutela mugarririk sartaldeko hiru leinuok: autrigoi, karistiar eta barduliarrek.

8. EUSKARAK JASAN DITUEN ERAGINAK

8.1. Hizkuntza zelten eragina

Jakina da jendetza zeltak Euskal Herrian izan zirela eta eraiki zituztela euren egoitzak, hiriak edo *castroak*. Gipuzkoako Albizturren edo Bizkaiko Nabarnizen badira horietakoak, esaterako. Neurri baten behintzat, zeltak eta euskaldunak auzo izan ziren lurralde berean. K.a. I. milurtekoan zehar etorri ziren Galia eta Hispaniara. Indoeuropar enborrekoak jende horiek. Aldi desberdinetan etorri ziren, jarraiko inbasioetan. Indoeuroparren uholde bat baino gehiago izan ziren.

Garbi ez dakiguna da zenbateko multzoa osatzen zuten Euskal Herrian izan ziren zelta horiek; edo ze harreman izan zuten bertoko biztanleekin, euskal jatorrikoekin. Azken baten ez dakigu zenbaterainoko eragina eta zertan izan zuten zehazki euskaldunen artean. Badakigu burdinaren langintza eurek ekarri zutela; eurek ekarriak direla jainko-sineste zahar batzuk ere.

Iberiar Penintsularen sartaldean eta erdialdearen zati baten finkatu ziren batez ere herri zeltak. Zelta indoeuroparrak ziren euskaldunek hegoaldean zituzten auzoak ere, gaurko Errioxaren erdialdean egokitu ziren beroiak. Ezkerraldean zeuden kantabriarrak ez ziren zeltak, baina bai haien sartalderago bizi ziren galaikoak.

Pirinioez iparraldean bizi ziren populuak, badakigu indoeuroparrak ez zirena; Galiako zeltek zituztenen bestelako ohitura, erakunde eta hizkuntzak zituztela. Baina Garonaz bestaldean bizi ziren galiarrak zeltak ziren, hizkuntza zelta zuten.

Jatorri zeltako izentzat daude gure arteko toki-izen ezagun batzuk: Deba, Nerbio, Ultzama, Zegama eta Lezama lakoak. Pertsona-izenetan ere, batez ere erromatar garaiko Nafarroa eta Arabako inskripzioetan, sustrai zeltako antroponimia ugaria da, Penintsularen erdialdean ageri denaren antzekoa. Gipuzkoan eta Bizkaian bakanago ageri dira holako izenak.

Euskal hizkuntzari dagokionez, hizkuntza zelten aztarren gutxi aurkitu da. Eta jatorri horretakoak diren hitzen kasuan ere, ez dakigu garbi euskarak hizkuntza zaharrotatik zuzen hartu dituen, ala latinaren bidez. Hala, euskarazko *gezi* / *gezu* latinezko *gaesum* formatik letorke, nahiz jatorriz hitza zelta izan.

Badira euskaran hitz batzuk, jatorri zeltakotzat daudenak. Mitxelenak eta Tovarrek eskaintzen

dituztenen artean: *erbi*, *gori*, *maite*, *mando*, *mendi*, *(h)artz*, *(h)egi*, *(t)egi*, *orkatz*. Zenbakietan ere hogeikako sistema hizkuntza zeltetan dagoen berbera da; baina ez da segurua haietatik hartua den.


Edozelan ere maileguon kopurua beti ere urria da, eta ziurtasun osorik ez dute eskaintzen. Horregatik bada, hizkuntzaren aldetik euskaldunek eta zeltek euren artean latinaren aurretiko harreman estu eta eraginkorrik izan zutenik ez dirudi; zalantzan jartzen dute behintzat adituek.

Seguruagoa da mitologia arloko eragina. Noiz ez dakigun arren, baina erromatarrek baino lehen seguruena, europar mitologia sartzen da euskaran. Barandiaranek dio, indoeuroparrak diren mitoak Euskal Herrian ere badirela, ustez erromatarren aurretik hona sartuak; beharbada Neolito edo Burdin Aroan. Zeruarekin loturiko mitoak dira, zerutar jainkoak aipatzen dituztenak: *ortzi*, *ortzegun* / *ostegun* ('zeruaren egun'), *eguen* ('argiaren egun') horren aztarrenak lirake. Era berean, *oinaztarria*, zerutik bialdutako harriaren indoeuropar mitoa gogoratzen duen hitza dugu; zerua edo zerutikako eguraldi-fenomenoa gogoratzen digun beste berba bat dugu, *osti-zaparrada* –Azkoitia aldean entzuten dena–, eurite bortitza adierazteko.

8.2. Latinaren eragina

Erromatarrek ere indoeuroparrak dira kulturaz, eta latina indoeuropar hizkuntza. Askozaz indartsuagoa izango da euskararen lurraldeak jasango duen latintze eta erromanizazio prozesua, aurretiazko zelta indoeuroparrena baino.

10. Euskararen
substratua eta
erromatarren
eragina.



Uholde berri honen indarrez hizkuntza zahar gehienak desagertzen joango dira –iberiera, kantabriera, hizkera zeltak eta beste–, eta guztiz aldentzera heldu ez ziren hizkuntzek ere sekulako eragina jasango dute latinaren aldetik; lexikoan, gramatika-egituretan eta, batez ere, kontzeptuen sistema osoan.

Erromatarren etorreraz, Euskal Herriaren hegoaldeak batez ere erromanizazio sakona ezagutuko du; lurraldea konkistatu ondoren latina hedatuko baita administrazio gune guztietan (K.a. I. mendetik IV. mendera arte).

Erromanizazioaren hasieretan, gaur egungo Euskal Herria osatzen duen lurralde guztian egiten zen

euskara, eta Euskal Herriaz harantzagoko beste lurralde batzuetan ere bai, gorago esan dugun lez.

Erromanizaziorik sakonena jasan zuten eskualdeak izan ziren gehien latineratu zirenak; latineratzea ez da besterik hizkuntzazko erromanizazioa baino. Latinaren sarrera Pirinioen alde bietatik gertatu zen, batetik latin iberiarra eta bestetik latin akitaniarra.

Gaurko Euskal Herriaren barrutian, esan daiteke euskara hobeto gorde zela *saltus vasconum* (mendialdea) zeritzan partean, *ager vasconum* (lautada) delakoan baino. Hizkuntzari tinkoago eutsi izana *saltus* alderdian, bertako orografiak eta bizimoduak esplikatu luke.

Lurralde menditsuetan biztanleak sakabanatuago biziko ziren eta euren bizimodu nagusia artzaintza izango zuten. *Ager* delakoak, ostera, nekazaritza oparoa eta hiriak izango zituen.

Horrek ez du inola ere esan nahi lautadetatik euskara guztiz aldenduko zenik. Aurrerago diogunez, jakina da XVIII. mendean, eta XIX. mendera arte ere oraindik, euskara egiten zela Arabako lautadan, Lizarrerrian eta Tafalla aldean ere, herri askotan behintzat. Batzuen ustea da, euskarak beheko lautadok atzera irabazi zituela Erromatar Inperioa behera etorri zenean. Ez da pentsatu behar, hala ere, erromatar garaian ager alderditik euskara guztiz aldendu zatekeenik.

Mitxelenaren ustean, latinaren eraso hain izan zen gogorra, ezen “euskal hizkuntzak ez baitu ezagutu beste inoiz, erromatarren garaian baino uholde bortitzagorik, ia desagertzearinoko zorian” laga zuena. Baina zorionez, IV. mendetik aurrera Erromako Inperioa gainbehera hasi zen, probintzializazioa eta anarkia nagusitzen zirela. Gertaera horrekin, Euskal Herrian ere bizimodu eta izaera zaharraren aldeko joerak sendoagotu egin zitezkeen.

Erromanizazio-prozesuak ez zuen, dena dela, behar adina denbora iraun osoa izateraino, eta prozesuaren etete horrek mesedetu zukeen euskararen iraupena. Geroago, frankoen eta bisigodoen inbasioei aurre egin beharko zieten hemengo biztanleek. Behin eta berriro azaltzen da godoen kronika zaharretan: *domuit vascones*. Ezbaiko egoera horrek lagunduko zion euskarari, lehengo eremuari eusten ez eze, eremu berrietara ere hedatzen Erdi Aroan zehar.

Kristautasuna etorri eta zabaltzearekin gertatuko da Penintsulako hizkuntza zaharren aldentze osoa. Adituen

ustez, kristautasuna erabakigarria izan zen gainerako hizkuntzen galeran.

Kristautze-prozesuak euskararen latinizazioan ere sekulako eragina izan zuen. Berdinketa hau egin daiteke: zenbat eta kristautuago, hainbat eta latinduago. Itxuren arabera, kristautasunaren sarrera euskal lurraldean nahiko goiztiarra izan zen, III. edota agian IV. mendetik aurrera kalkulatzen da, nahiz gutxi dakigun horrezaz. Halaxe egonkortu zen latina eta erromatar zibilizazioa euskal lurraldean. Kristautzea hirietatik hedatu zen. Euskal lurralde zaharrea Kalagurri eta Iruña izan ziren lehen fokuak. Baiona ere “civitas” bezala izendatzen da aldi horretan.

Europa sartaldeko beste herri batzuek latinetik kanpo ere ezagutu zuten kristautzea. Irlandan eta Britainian gaelikoa erabili zuen Elizak dotrina irakasteko, eta Mauritanian ere bertako hizkuntza, kasu baterako.

8.2.1. Hedatzeko moduak eta inguruneak

Erromak latina berekin eramane zuen ailegatu zen bazterretaraino. Horretarako bitarteko ugari zituen Inperioak eta haren hiriburu nagusiak. Lehenengo, gudarostea eta honek eremu konkistatua antolatzekeo zituen planak. Bigarren, lurraldea gobernatzekeo eraikitzen ziren administrazio-egiturak (*conventus juridicus*). Hirugarren, eraiki zituzten komunikabide-sareak. Eta laugarren, komunikabideon bidez sortu zituzten merkataritza-harremanak. Erromatarrek Euskal Herrian zuketen interesa, batez ere, lehengaietan zegoen: laboreak (nekazaritza) eta mea (meagintza). Galiak eta Hispaniak lur onak zituzten nekazaritzarako. Euskal Herrian, bestetik, burdina, beruna eta marmola

zegoen. Esaterako, Foruko (Bizkaia) erromatar hiritxoan Ereñoko harriaz egindako aztarrenak daude.


Erromatarrek lurtarrak ziren gehiago, greziarrak itsastarrak ziren bitartean. Lehorrez mugitzen ziren eta garraiatzen zituzten euren merkantziak batez ere. Horregatik urratu eta zabaltu zituzten hainbeste galtzada eta, Euskal Herrian ere bai.

Erromatar galtzadek euskal lurraldea alderik alde zeharkatzen zuten eta haiexen bidez sartu ziren batez ere erromanizazioa eta latina. Ebro ibai ingurua, galtzadak zeharkatzen zuena, goizago erromanizatuko da, eta Arabaren hegoaldea berdin. Galtzada-komunikabideok zeharkaturiko eremuetan euskara atzeraka joango da. Ez da berdin gertatuko aldiz Bizkaian, Gipuzkoan eta

Novempopulania (Akitania), nahiz lurralde hauetan ere erromanizazio fokoak izan.

Tarracotik (Tarragona) *Caesaraugustara* (Zaragoza) zihuan bidenagusia Ebro ibai ondotik zetorren *Vareiaraino* (Logroño ondoan), eta handik Burgosen barrena *Asturicaraino* (Astorga) ailegatzen zen. Eta bere bidean *Graccurris* (Alfaro) eta *Calagurris* (Kalagorri) zeharkatzen zituen; eta *Vareia* eta *Tritiumen* (Naxera) zehar *Birovescara* (Briviesca) jotzen zuen. Hiri hau bidegurutzea zen.

Galtzada horrek bazuen adar bat Logroño parean gora egiten zuena, eta *Curnonium* (Los Arcos) eta Lizarran zehar *Pompaelora* (Iruña) jotzen zuena. Eta beharbada adar bat *Oiarsora* (Irun) heltzen zen.



11. Euskal Herria
zeharkatzen
duten erromatar
galtzadarik
garrantzitsuenak.

Kostatik hurrago bazen beste galtzada-adar bat: *ab Asturica in Burdigalam* esaten zitzaion, ‘*Asturicatik Burdigalara*’. *Birovescan* gora Araban sartzen zen, lautada zeharkatuz Nafarroako Sakanan barrena zihoan *Pompaelora* heldu arte. Galtzada horren bidean zeuden Iruña-Veleia eta *Araceli* (Arakil).

Latin-kultura, Pirinioez behegian Zaragoza eta *Oscatik* (Huesca) sartu zela dirudi, eta iparraldean Tolosa (Toulouse) eta *Burdigalatik* (Bordele). Eskualde batzuetan erromanizazioaren presentzia ahulagoa izango zen.

Ikertzaile batzuen ustez, Sertoriok Oskan fundatzea (K.a. 77. urtean) eta hiri hau kultura-gune bihurtu izana gertaera garrantzitsuak dira erromanizazio prozesuan. Bestalde, *Pompaelo* (Iruña) fundatzeak ere latinen presentzia sendotu egingo zuen euskal lurraldean. Lehenengo hiriak Pirinioen barrenean izango zuen eragin gehiago, eta bigarrenak Nafarroako lautadetan.

Latinen presentziak, dena dela, ez du esan nahi euskara alden duenik; herri-gune txikietako zein hirietako biztanle zeheak euskaldun iraungo zuten gero ere; gehienez ere elebidun. Badira uste dutenak, Iruña fundatzeak ez zuela latinizazioan horrenbesteko eraginik izan, zeren askoz geroago ere hango biztanleak euskarari sendoa eutsi baitiote. Euskal hiztunek ‘Iruña’ deitu izan diote antzinako denboretatik hiriburu zahar horri.

Toki-izen asko dira euskal lurraldean erromatar garaitik datozenak eta latinen arrasto argiak gorde dituztenak: herri, auzo eta etxe izenak, batez ere.

Toki-izen askoren atzizkiek salatzen dute euren latin-jatorria: pertsona-izena gehi jabetasuna markatzen duen atzizkia dute izenok euren egiturari. Hala: *-ika* atzizkia (Gernika, Sondika, Gatika), *-ain* atzizkia (Barañain,

Beasain, Andoain, Orendain), *-ana* atzizkia (Kastrexana, Antezana, Audikana), *-ano* (Abornikano, Aprikano, Barañano, Legutiano, Lukiano), edo *-iz* atzizkia (Gaminiz); funtsean *fundus* edo *villa* baten ugazabaren deitura adierazten dute toki-izenok.

8.2.2. Hitz maileguak gaika

Erromatarren etorrerak sorrarazi zuen kultura eta bizimodu aldaketaren ingurukoak edo arlo horietakoak dira latinetik jasoriko mailegu asko. G. Rohfsen esanetan, ia ez dago arlo tematikorik aldaketa horren eragina jasan ez zuenik, eta, ondorenez, maileguak jaso ez zituenik.

Lege eta administrazio erakuntzako latin-hitzak oparo hartu zituen euskarak eta bere sistemara egokitu: lege (< *legem*), errege (< *regem*), populu (< *populum*), jende (< *gentem*).

Kontzeptu abstraktoen mundukoak ere asko dira: zentzu / zentzun (< *sensum*), borondate (< *volutatem*), ohore (< *honorem*), damu (< *damnum*).

Merkataritzari loturiko maileguak ere ezagunak dira: merkatu (< *mercatum*), tratu (< *tractum*), abere (< *habere*), kopuru (< *cumulum*), diru (< *denarium*).

Irakaskuntza arloari lotuak dira: eskola (< *scholam*), liburu (< *librum*), maisturu (< *magistrum*).

Gizarteko maila gorenetakoa jendeak errazago onartuko zuen hizkuntza ofiziala eta hala beregandu zituen euskarak *mediku*, *ostatu* bezalako hitzak.

Janzkera, soineko edo jantzi-ataleak dagozkien hitzak: praka (< *bracam*), galtza (< *calceam*), sakela (< *sacellam*).

Gizakiak darabiltzan tresna, lanabes eta armen ingurukoak: ezpata (< *spatham*), mailu (< *malleum*), katea (< *catenam*), makila (< *bacillam*), makulu (< *baculum*), akulu / akuilu (< *aculeum*).

Nekazaritza eta ardantzaren inguruko hitzak, lanabes, tresna, uzta eta beste: labore (< *laborem*), zekale (< *secalem*), meta (< *metam*), uzta (< *augustam*), kukula / kululu (< *cucullam* / *cucullum*), olio (< *oleum*), golde (< *culterem*), kupela (< *cupellam*), zela (< *sellam*).

Fruitu edo barazkien izenak: gaztaina (< *castaneam*), gerezi (< *cerasia*), kipula / tipula (< *cepullam*), piper (< *piper*), ortu (< *hortum*).

Etxegintza, eza edota etxeko bizimoduarekin loturiko kontzeptuak eta dagozkien hitzak dira kopuruz eta edukiz pisu handienetakoa dutenak. Eraikuntza eta honen atalak: gaztelu (< *castellum*), horma (< *forma*), korta (< *cohorta*), gela (< *cellam*). Etxeko axuar edo hornidurak: kandela (< *candelam*), zizeilu / zizilu (< *subsellium*), maindire (< *mantile*), zama (< *sabanum*).

Jan-edanaz eta etxeko tresnei loturiko hitzak: lukainka (< *lucanicam*), ope (< *offam*), koilara (< *cochleare*), galdara (< *caldaria*), kaiku (< *caucum*), katilu / gatilu (< *catillum*), bazka (< *pasco, pascere*). Mitxelenak berebizikotzat dauka euskarak jan-edan arloan eta etxeko axuarrarenean latinetik jaso duen hitz altxorra.

Mitologia edo sineste munduko izen batzuetan ere latinaren lorratza dugu: azturu / azti (< *astrum*), lamina (< *laminam*), sorgin (< *sors* + eusk. *-gin*).

Denbora eremuko hitzak dira: ordu (< *ordo*), denpora / denbora (< *tempora*), orloju / erloju (< *horologium*).

Espazio edo leku eremuko hitzak: leku (< *locum*), okelu (< *locellum*).


Eta oro har hitz generiko soiletan lorratz sakona utzi du latinak. Hala: agur (< *augurium*), gauza (< *causam*), gertu (< *certum*), gorputz / korpitz (< *corpus*).

Kristautzea sartu eta hedatzearekin elizari eta dotrinari atxikitako kontzeptuak eta euron izenak oparo sartuko dira. Hala: eleiza / eliza (< *ecclesiam*), parrokia (< *parrochiam*), kurutze / gurutze (< *crucem*), pekatu / bekatu (< *peccatum*), arima (< *animam*), parka(tu) / barka(tu) (< *parcere*), infernu (< *infernum*), angeru / aingeru (< *angelum*), kristinau / kristau (< *cristianum*), saindu / santu (< *sanctum*), izpiritu (< *spiritum*), sekula (< *seccula*), zeru (< *caelum*), bedeinkatu (< *benedicatum*). Berdin erlijioari edo elizari loturiko izaki-izenetan: abate / abat (< *abbatem*), apezpiku (< *episcopum*), serora (< *sororam*).

Denbora eta egutegiaren eremuko hitzak ere asko dira; bereziki jaiegun eta festa-izenetan da igarriago latinaren ekarria: domeka (< *dominicam*), abendu (< *adventum*), marti (< *martium*), natibitate (< *nativitatem*), garizuma (< *quadragesima*), erramu (< *ramum*), Pazko / Bazko (< *Pascha*), Mendekoste (< *Pentecostem*), domusantu / omiasaindu (< *domus sanctorum* / *omnium sanctorum*), etab.

Hitzen eratorikuntzarako euskarak dituen atzizkietan ere ezagun da latinaren eragina. Agerien eta deigarrienetarikoa, euskarak aditzak sortzeko darabilen *-tu* atzizkia da, latin aditzaren *-tum* supinotik erakarria. Bide horretatik aditz asko ere beregandu ditu: aditu (< *auditum*), adikatu (< *fatigatum*), sakratu (< *sacratum*), gaztigatu (< *castigatum*), alokatu (< *locatum*), debekatu (< *vetitum*), mendekatu (< *vindicatum*).

12. Euskal Herriaren
gutxi gorabeherako
mugak I. mendetik VII.
mendera bitartean.



Izen-adjektiboen atzizkietan ere ezagun da eragin hori. Itxuraz euskara hutsezkoak diruditen atzizki batzuen azpian latina edo honen ikutua dugu. Hala: -tsu (< -osus), *indartsu*, *gogotsu* bezalako berbetan; -ari (< -arius), *errementari* hitzean; -men / -pen (< -amen, -imem), *itomen*, *eskumen* hitzetan; -mendu / -mentu (< *mentum*), *luzamendu*, *urrikalmendu* lako berbetan, eta beste gehiago.

Eta latin-erromantze itxura garbiagokoak berdin: -ura / -tura (lat. -uram), *egitura*, *lotura* hitzetan; -tate / -dade (lat. -tatem, gazt. -dad), *egitate*, *jakitate*, *bakartade* / *bakardade* edo *ahuldade* berbetan.

Euskal pertsona-izen zahar batzuek ere itxuran ezagun dute euren arkaismoa. Hala, *Laurenti* / *Laurendi* (< *Laurentii*), *Bikendi* (< *Vicentii*), *Peri* / *Betiri* (< *Petri*), *Domiku* (< *Domenicu*).

Euskarak latinetik harturiko hitzetan bada ezaugarri deigarri bat: euron itxura arkaikoa edo zahar kutsukoa. Latinetiko maileguok itxura zaharra garbiago eta hobeto gordetzen dute sarri, erromantzeetan hartu duten itxurak baino. Horrek hau esan nahi du: zenbat eta jatorrizko itxura hobeto gorde, hainbat eta zaharragoak direla maileguok. Eta hitzok euskaran gorde duten itxuratik dakigu sarri noiz sartuak diratekeen ere.

Gure Aroaren lehen mendeetakoak dira maileguetarik asko. Hitz hauetarik gehienetan, eta toponimian berdin, inperio garaiko latina sartu zen, eta orduko fonetika, erromantzeek jasan dituzten aldaketak barik gorde du euskarak. Badira, hala ere, zahar itxura gorabehera, askoz beranduago sartu diren hitzak, Erdi Aroan euskararen txertatu zirenak eliz hizkeraren bidez.

Latinaren eraginak, hitz eta atzizkietatik urrunago, morfosintaxia ere hartu zuen gutxi-asko. Euskal morfologian latinaren egiturak ezagun dira, baina, Mitxelenaren ustez, egiturek beranduagokoak dira, erromaniko berantiarrekoak.

Kanpotik begiratuz gero, harrigarri dirudi euskarak zelan latinaren uholde kultuaren aurrean bizirik iraun duen, hizkuntza horretatik hainbesteko hitz eta egitura pila hartu ondoren. Agian latinaren eragin oldartsu horrek esplikatzen du bizirik irautea ere. Euskarak sekulako asimilazio-ahalmena erakutsi du historian zehar. Asimilazio-ahalmen horri esker biziberritu da eta egoera berrietara ekandu. Antzeko kasu bat aipatzeko, ingelesarena ipini daiteke: germaniar hizkuntza bat izanik, frantsesaren bidez latin-erromantze jatorriko zenbat-gura hitz eta egitura erraztasun handiz beregandu baititu.

Latinak eta erromantzeek euskararen izan duten eragina ageria da eta ukatzerik ez dago, baina ha-ta-guzti ere hizkuntzaren funtsezko egiturek bere hartan diraute: adjektiboa izenaren ondoren doa (*etxe zuri*); mugatzaileak atzizki bidez markatzen dira (*etxe zuri-a*); erlazio-markak orobat (*etxe-an*). Euskal aditzak, bai trinkoak, bai perifrastikoak, egitura oso berezia du (*dago, egon da*); esangura markatua duen sintagma, galdegaia, aditz aurrean kokatzen da, eta abar.

Latina hizkuntza kultua zen. Hala bada, euskara hizkuntza kultu baten ekarriaz aberastu egin zen: kontzeptuz ugaritu eta zehaztasunetan irabazi. Eragin hau berez-berez, erresistentzia barik gertatu zen. Ondoriotzat eman daiteke, beraz, latinaren bidez aberastu egin zela euskara. Gorputzak, eta sabelak, janariarekin egin ohi duten prozesu antzekoa egin zuela: latinaz janaritu eta indartu egin zuen: bere sistema barruan egosi ziren jasoriko hitz eta egiturak, hizkuntzari indar berria emanik.

Latinaren aurretik eta gero ere euskara prozesuan egon da, eta orain ere horretan dago. Prozesuan dagoelako iraun du eta dirau.

8.3. Beste eragin batzuk

Arabieraren eragina modu apalean baino ez zen gertatu euskararen. Modu bitara kutsatu zen: bide zuzenez eta zehar bidez, erromantze bidez. Lexiko mailara mugatu zen eragin hori, maileguzko hitz jakin batzuetara.

Zuzeneko eragina, Aragoi aldetik gertatu zela dirudi, edo hobeto esanda, hego-ekialdetik. Arabieratik zuzen hartuak dirudite hitzok: *mertxika*, *alkandora*, *atorra*, *azukre*, *azokegun* (A. Tovar). Beharbada ugariagoak dirateke erromantze bidez, gaztelania zaharraren bidez sartu direnak: *almaiz*, *azafrai*, *azanario*, *anega* eta *arroa*, esaterako.

Denboran atzerago eginda, bisigodoen aldian, herri-latin arrunta ere egingo zen gutxi-asko euskal lurraldean; bertoko berezitasunak zituen, ez kanpotik etorria. A. Tovarrek dioenez, *buruki* (urki) eta *gudu* hitzak germaniar jatorrikoak dira, eta seguruen bisigodoek edo frankoek ekarriko zituzten.

9. ERROMANTZE-HIZKUNTZEN ERAGINA


Latinetik, prozesu geldo baten bidez erromantzeak sortu zirenean, hauek joan ziren apurka-apurka eta eremu zibilean haren lekua betetzen. Erromantze batzuek beste batzuek baino estatus hobea jadetsi zuten, botere politikoaren babesa izan zuten neurrian.

Hala, Pirinioez beheitian, gaztelania nagusitu zen, nafar-aragoiera endekatuago gelditzen zela. Pirinioez goitian probentzala eta honen aldaerak –gaskoia eta biarnesa barne– indarrean izan ziren XVI. mende ingurura arte. Handik aurrera frantsesak hartuko du administrazioan eta kulturen nagusitasuna.

Erdi Arotik aurrera erromantzeekin ukituan eta jarraiko harremanean izango da euskara, eraginak etengabeak gertatuko direlarik, bai lexikoan, bai morfosintaxian, bereziki aditzaren morfologian.

Euskarazko izkribuak ezagutzen diren momentutik, erromantzeon eragina igarria da, latinaren oinordeko baitira hizkuntza berriok eremu osoan. Iparraldean gaskoia eta biarnesa; Pirinioez behealdean, nafar-aragoiera eta gaztelera.

Lexikotik abiatuta, mailegu zaharrak dira euskarari *atxakia* / *aitzakia*, *errazoi* / *arrazoi*, *amodio*, *bentana*, *etxura* / *itxura*, *maisu*, *teila* eta beste ezin esan ahala hitz, eremu semantiko guztietakoak, erlijio arlokoak barne.



13. Euskara historian zehar.

Itxuran dute ezagun erromantzetik hartuak direla, ez latin zaharretik.

Aditzera bagatoz, sartaldeko euskaran, gaurko bizkaieran ditugun -adu > -au (gazt. -ado) amaieradun aditzak gaztelaniako partizipioetarik egokituak dira: *kantau, errezau, aparau, azertau*. Berdin -idu (gazt. -ido) dutenak: *koxidu, errezibidu*.

Eratorpen-atzizkien arloan, izenetan dugun -zino / -zio atzizkia (lat. -tionem, errom. -ción, -tion), *afizio, debozio* hitzetan; -zia (lat. -tiam, gazt. -cia), *ahulezia, flakezia, tristezia* berbetan; -dade (lat. -tatem, gazt. -dad), *ondade, maldade* hitzetan.

Puntu honetan ez gara luzatuko, azterketa sakonagoak eskatuko lituzkeelako. Bestalde, gaur egun ere indarrean eta bizi-bizi dagoen eragin-prozesua da, iparraldean frantsesaren aldetik, hegoaldean gaztelaniarenetik, eta bietan ingelesaren aldetik.

10. DIALEKTOAK EDO EUSKALKIAK

Euskara, beste hizkuntza asko lez, dialektoetan banaturik azaldu da, bai idatziz, izkribu zaharrenetarik, bai ahoz, eskualde diferenteetako hiztunen erabileran. Idatzirako batasun prozesuak, dialekto barruan lehenengo, hizkuntza oso mailan beranduago, denboran zehar gertatu dira geldiro-geldiro, kultura esparruko ahaleginaren bidez.

XVI. mendeko idatzietan, edota XV.era atzeratu daitezkeen testu-ekoizpenetan –eresi zaharrak, errefracuak, Etxepare, Lazarraga–, dialekto ondo bereizietan islaturik ageri zaigu euskara. Hauek dira

dialekto literario klasiko ezagunenak: lapurtera, zuberera, bizkai euskara, gipuzkera eta, maila apalagoan, nafar euskara.

Detxepare, Leizarraga, Tartas, Axular, Larramendi, Kardaberaz, Mendiburu, Mogel, Añibarro, Lizarraga Elkanokoa dira, esate baterako, euskalki literario zahar eta klasikoen eredu argiak.


Luis Luziano Bonaparte printzea izan zen XIX. mendearen erditik aurrerantz, euskalkiak metodologia zehatzagoaz bereizi eta deskribatu zituen. Bere *Cart des sept Provinces Basques* delakoan zortzi dialekto ematen zituen, gero R. M. Azkuek zazpira bilduko zituenak: bizkaiera, gipuzkera, lapurtera, baxenafarrera, goi nafarrera, zuberera eta erronkaria. Euskalki-banaketa hauek egiteko ahozko eredua hartu zen irizpide fidagarritzat, ez aurretiko idazleen emaitzak.

Azken mendeotako idatzizko ekoizpenari jaramoten badiogu, euskalki literarioak bost direla esan daiteke: lapurtera –edo nafar-lapurtera– eta zuberera iparraldean, eta gipuzkera, bizkaiera eta, nafarrera hegoaldean.

Denbora modernoagoetan bateratze-prozesu garrantzitsu bi gertatu dira idatzirako. Iparraldean, baxenafarrera eta lapurtera mintzodunen eredu idatzi bat nagusitu zen XX. mendearen lehen partean, P. Lafittek “nabarro-labourdin litteraire” deitu zuena. Euskara osoaren batasun-eredua, gaur indarrean duguna ere, 1918an bertan abian jarri zen Euskaltzaindia sortzearekin, baina gauzatu batez ere 1968tik aurrera egin da.

Euskal dialektoen eta antzinateko euskal leinu zaharren artean halako parekotasun harrigarri bat sumatzen da.

14. 1863an
euskararen
dialektuak,
Luis Luziano
Bonapartek
zehazturik.



Sartaldetik ekialdera ditugun leinuok dira: autrigoiak, karistioak, barduloak eta baskoiak, eta iparraldean akitanoak. Lurralde historikoekin ez dute parekotasun osorik gordetzen, ez leinuok, ez euskalkiek. Autrigoiak lurralde zaharrean ez da euskara bizi aspaldiko denboretatik. Karistiarren lurlean, Bilboko Ibaizabal eta Deba ibarra bitarteko eremuan bizkai euskara deritzana egiten da, Arabako lautada ere honen barruan sartzen dela. Barduliarren eremuan, Deba Goienera mendi-katetik Donostiara edo haruntzatxoago, gipuzkera deritzana egiten da. Euskalki hau Nafarroako herri mugakide batzuetara ere zabaltzen da.

Gipuzkoaren ekialde-muturretik sortalderantz –Errenteria, Oiartzun, Irun eta Hondarribia barru direla– eta Nafarroan barrena, antzinako baskoien lurraldean, goi nafarrera da dialekto nagusia. Hala ere, Pirinio azpiko ibar diferenteetan, hizkera bereziak egiten dira, galdua den erronkaria bereziena dela. Baztan aldeko euskara lapurteratik hurrago dago. Pirinioez iparraldean, Novempopulania zaharreko lurlean, hiru euskalki bizi dira: lapurtera, baxenafarrera eta zuberokera.

Eliz lurralde banaketak egin zirenean lehen Erdi Aroan, Armentia elizbarrutia sortu zen Araban

(X-XI. mendeak). Karistiarren lurraldeari zegokion gutxi gorabehera. Bilbotik Deba ibarrerainoko lurraldea hor sartzen zen. Geroago Kalahorrako elizbarrutiaren barruan geratuko zen guztia. Aldi bertsuan sortu zen Valpuestako elizbarrutia ere (Burgos), autrigoi zaharren lurraldea hartzen zuela, Bizkaiko Enkartazioak barru zirela. Nafarroa eta Gipuzkoako lurralderik gehiena Iruñeko elizbarrutiaren barruan egongo da. Eta azkenez, Gipuzkoako ekialdea (Irunaldea) eta Nafarroako Baztan Baionako elizbarrutiaren barruan.

Eliz banaketok berdintasun handia dute euskal lurralde diferenteetako hizkera-moduekin. Zuberora, adibidez,

Oloroeko elizbarrutiari atxikia egon zen luzaro, ez Baionakoari.

11. EUSKARAREN LEKUKOTASUNAK ERDI AROAN

Erdi Aroan euskara gaur baino eremu zabalagoetara heltzen zen, batez ere ekialdetik, ipar-ekialdetik eta baita hegoaldetik ere. X. mendetik aurrera euskararen gaineko informazio gehiago dugu, nahi edo behar adinakoa ez



15. Euskal Elizbarrutiak
Behe Erdi Aroan.

bada ere, eta horri eskerrak gehiago dakigu euskararen Erdi Aroko hedaduraz.

Mende horren erdi ingurukotzat jotzen dira Errioxako Donemiliaga Kukulako monasterioko glosak, “Glosas Emilianenses” deritzenak. Haietan azaldu ziren, erromantzezko lehen glosa ugariagoen artean euskarazko bi ere. Hauek dira: “izioki dugu” eta “guek ajutu ez dugu”.

Garrantzi berezia du XII. mendean Aymeric Picaud izeneko erromes batek idatzi zuen “Codex Calixtinus” deritzan testuak. Donejakuerako erromesbiderako gida antzekoa da. Berean, euskarazko hitz zerrendatxo bat ageri da, non aipatzen diren izenok: Ur(t)zia (Jainkoa, zerua), *Andrea Maria* (Andre Maria), *ogi*, *ardum* (ardao), *aragi*, *arrain*, *etxea*, *iaona* (jauna), *andrea*, *elizera*, *gari*, *belaterra* (bereter, apaiz) eta besteren batzuk. Hitz guztiok garden-gardenak gaurko euskararen espiluaz ikusita.


Erdi Aroko dokumentazioa ugaria da, berariaz Nafarroan eta bertako Foru Orokorrean. Honetan eta beste donazio, testamentu eta halako izkribu zaharretan hainbat euskal izen ageri dira, eta euskararen aldeko interesa duketenak batez ere toki-izenak, pertsona-izen eta goitizenak dira.

Nafarroako Foruan euskarazko hitz eta hitz-kateak ere badira erromantzezko testuan txertaturik: *on bazendu abaria*, bazkari-eskaintze formula bat, monasterioko abat nagusiari zuzendua; *ozterate* (oztera edo gudutaldera joate), *erret bide* (errege bide), *girisellu zor* eta *ilunbe zor* (zerga mota bi), *etxajaun* eta *etxandra*, *gaitzes berme* eta *ones berme* (gaitzaren eta onaren fiatzaile, bermatzaile). Beste dokumentu batzuetan ageri diren izen arruntak: *buruzagi*, *unamaizter*, *unainausi*, *umea*.

Nafarroako Erdi Aroko dokumentazio aberatsean ageri diren pertsona-izen eta euren goitizenak dira maiz aldi hartako hizkuntzaren irudi txiki bat eskaintzen dutenak: euskarazko izen eta adjektiboak dira funtsean, norbaiten deitura gisa erabiliak. Goitzen modura erabilitako adjektiboen artean aipa daitezke: *andia*, *txipia*, *beltza*, *zuria*. Ofizioaz eraikitako gizaki-izenak dira beste batzuk: *artzaiia*, *unaia*, *unidea* (inude), *zamargina* (narrugin), *iguraiia*, *zalduna*, edo giza-izen soilak: *mutila*, *emazte ona*. Abere-izenak beste batzuetan: *artza*, *zerria*, *erlea*.

Jakingarri interesgarriak aurki daitezke era berean, Errioxako Donemiliagako Kartularioan ere (1025), batez ere Arabako toki-izenen zerrenda luze bezain aberatsa ematen zaigulako, monasterioari burdina edo abere zergak ordaintzen zizkienena. Aurrerago gehituko dugu informazioa honezaz.

Erdi Aroa baino hainbat lehenagokotzat datatu dituzten euskarazko inskripzio batzuk, oraintsu (2006) ezagutzera eman dira –hedabideen bidez oraindik, ez zientzia-aldizkari bidez hau idazteko momentuan– Gasteiztik hur dagoen Iruña-Veleiako erromatar hiri zaharraren aztarnetan aurkituak. Euskal inskripzio eta irudiok K.o. V. mendekotzat jo izan dira, baina oraindino ikertzaileen onespén osoa ez dute jaso. Euskaraz ageri diren hitz-kateetan, dotrinako formulak dirudite batzuek: “Geure ata zutan”, “Jesus, Ioshe ata ta Mirian ama”. Hitz segida batzuek kolore-izenak jasotzen dituzte: “zuri, urdin, gori”, “urdin isar”. Ageri da ere “Jaun” izena. Eta azkenez badira aditz izen batzuk ere: “edan, ian, lo”. Aurkikundeon egiazkotasuna frogatuko balitz, Donemiliagako glosetatik aldi horretara dagoen bost mendeko tartean aurreratuko litzateke euskararen lekukotasun idatzien agerkundea.



16. Euskarazko esalditxoak Donemiliagako glosetan.

12. LEKUKOTASUN HISTORIKOAK EUSKARAREN GEOGRAFIA BATERAKO

Toponimia dugu, duda barik, euskarak aldi zaharretan izan zuen hedadura ezagutzeko bide ziurrenetarikoa. Leku-izenak dira euskaraz ditugun lekukotasunik zaharren eta seguruena. Euskal toponimia bakana denean ez da esanguratsua, baina maiztasun handikoa eta jarraikoa denean lurralde baten, horrek esan nahi du hango biztanleek euskara egiten zutela; euren hizkuntzan eman zizkietela izenak etxe, landa, soro,

zubi, baso eta enparaduei. Euskal toki-izenak bakandu edo mehatzen diren lekuan, horrek esan nahi du hizkuntza ere ahal dagoela aldi horretan.

Goitizen edo gaitizenak aipatu ditugu gorago. Honez esan behar da ugariak direla izkribu zaharrotan, eta badirudi beste leku batzuetan baino zabalago erabiliak izan direla gure artean. Berebiziko garrantzia dute ondoko arrazoioek: batetik, abizenak oraindik finkatzeko zeuden garai batekoak direlako; bestetik, erabiliak diren lekuan eta aldian euskararen presentzia ohikoa zela erakusten dutelako; eta azkenik, euskal

testu idatzirik ez dugun aldi bateko euskarak nolako ezaugarriak zituen erakusten digutelako. Adibide gisa, XIII. mendean Nafarroan honelako batzuk ageri dira: *Don Semen Zuurra*, *Eneko ezkerre*, *M. Periz Muskarro*, *Domingo Sanz Motza* eta beste asko: *zuur*, *ezker*, *muskar* eta *motz* hitz gardenak ditugu hor.

Toki-izen baten esanahia ilundu edo ahazten denean, izena ere desitxuratu egiten da batzuetan, eta erdaratu beste batzuetan. Hala aldatu dira itxuraz euskal jatorriko hainbat toki-izen, batez ere euskara galdu eta erdara nagusitu den eremuetan. Nafarroan *Irunberri* zaharra *Lunbier* bihurtu da; *Lizarra* zaharra, *Estella*. Nagusitu den hizkuntzan esangura hartuko duen itxura hartzen dute toki-izenok zaharraren lekuan. Hala, Bizkaiko Ibaizabalen ezker aldean, *Larrañeta* zaharra *Las Reinetas* berritxuratu dute biztanleek; *Olabarrieta* zaharra, *Las Barrietas*, edo *Errekaortu* zaharra, *Retuerto* bihurtu dute, esangura berria emanez. Beste batzuetan gaztelaniara itzuli da oso-osoan, *Zelaieta* zaharra, *Las Llanas* bihurturik. Izenen itxura-aldatzeak oraindik handiagoak izan daitezke euskararen aztarrenak urrundu ahala, Pirinioen erdialdean kasurako.

Labur esateko, toponimia-datuak hizkuntza-egoeraren erakusle garbiak dira nekazal gizartean aldi historiko bakoitzean.

Euskararen geografia zaharra toponimiaren argitan hau izango litzateke. Sartalderantz, oraingo mugetatik askoz urrunago ez ziren izango. Hegoaldetik, aztarren garbiak ditugu Errioxan eta Gaztela iparraldean. Ekialderantz, euskal izenak ugariak dira Aragoi Goienean eta Kataluniako Pirinioan. Beste hainbeste esan daiteke Gaskoniako lurraldeaz.

12.1. Nafarroako Erresuma

Erdi Aroko dokumentazioan (XI-XII. mendeetan) euskara izendatzeko *lingua navarrorum* eta *basconea* *lingua* izenak ageri dira erabilirik; hau da, “nafarren hizkuntza” eta “baskoien hizkuntza”. Izan ere baskoiak izan ziren politika mailan nortasunik handiena erdietsi zutenak, Nafarroako Erreinua eraiki zelarik.

Nafarroako lurraldean euskarak duen egoera, euskal toponimiak duen dentsitatean islatzen da ondoen. Askoz ugariagoa da euskara egiten den edo oraintsura arte egin den eskualdeetan; ez da hain trinkoa euskara aspaldi galdu zen Erdialdeko lurretan; eta askoz bakanagoa gertatzen da Erribera alderdian. Zenbat eta zaharragoa den dokumentazioa, hainbat ugariagoa euskal toponimia hegoaldean ere. Era berean, beti ere ugariagoa da toponimia txikia deritzagunean –landa, soro, baso, etxe, erreka eta halakoak–, gune inportanteen izenetan baino.

Toponimia txikiak argiro erakusten du Behe Erdi Aroan (XIII-XIV. mendeak), hasi Behe Nafarroatik eta Goi Nafarroaren hegoaldera Ebro ibaiaren hurrera heltzen zela euskararen muga: Aragoi ibaiaren haranean dagoen Zarrakaztelutik Sesma eta Elizagorriara (Lazagurria) doan marraz iparraldean euskara egiten zen.

Ezin da ukatu, euskara Erdi Aro guztian Nafarroako Erresumako biztanleen harreman-hizkuntza nagusia izan zela; baita askoz geroago ere. Mendialdeko biztanleen hizkuntza bakarra izan da luzaroan, baina nafar hiri handi eta ertainetan ere arrunt mintzatu izan da.

Ikertzaile batzuen ustez, Iruñaren fundazioa erabakigarria gertatu zen euskararen galeran, bai hiriburuan bertan, bai Iruñerrian. Beste batzuek, aldiz, uste dute Iruñaren inguruko lurraldearen eragina, batez ere ekialdearena,

gertatu zela erabakigarria; goizago erromanizatu eta kristautu zen partea. Hauen ustez, euskararen galera Nafarroan, lurraldez baino gehiago gizarte-mailaz gertatuko zen: jende erromanizatuia izango zen gizarteko goi karguetan, botere-guneetan, eta euskaldun elebazarrek gizarte-maila zeheagoa osatuko zuten. Baina denaren gainetik argi utzi behar da, Nafarroako lautadako gizartea mende luzeetan elebidun izan dela, edota elebitasuna izan dela nagusi nafar lurraldean.

Azken mendeotara etorritz, XVIII. mendean oraindik Tafalla eta Lizarraraino heltzen zen gutxienez euskara hegoaldeetik. Aragoirekin muga egiten duen ertzean Leireko monasterioak zerikusi handia izango zuen inguru horretan erromantzea nagusitzean.

Euskararen atzerakada nagusia Nafarroan XIX. mende hasieratik honunzkoa da, galerarik bortitzenak gerrateen ondoren gertatu direlarik: lehenengoa mende hasieran; bigarrena eta hirugarrena karlista gerrate bien ondoren.

Mende horretan zehar galdu zen, esaterako, ipar ekialdean, oraindik ere Iruña aldean euskara egiten zen denboran. Erronkarin XX. mendearen hasierara arte euskara egin izan da. Zaraitzun beranduagora arte.

Nafarroaren erdi-sartaldeaz loturiko datu bat: XIX. mendearen azken herenean, Irurzundik Iruñera bitarteko lurraldean, eta Iruñerrian ere, euskara egiten zen oraindik. (Jose Migel Barandiaranen lekukotasuna).



17. Euskararen mugak zenbait garaitan Nafarroan.

Azkenengo galera bortitzena XX. mendearen 30-40ko hamarkadetan gertatu da, Gerra Zibil ondoren.

12.2. Arabako herrialdea

Euskarak, Araban ere, luzaroago iraun du toki-izenetan, bertako biztanleen ezpainetan baino. Baina hizkuntza galdu ahala, euskal izenotariko asko euren jatorrizko itxura galtzen joan dira eta desitxurutzen kasu batzuetan, eta gaztelaniazko ordezkio ulergarriez ordezkatu izan dira beste batzuetan. Euskara, batez ere XVIII. mendetik aurrera, emeki-emeki atzeraka joan da Arabako lurraldean.

Toponimiari buruz dugun dokumentu zahar baliotsuena goian aipaturiko Donemiliagako Kartularioa dugu (1025). Beronen bidez ezagutzen ditugu ondoen Erdi Aroko Arabako toki-izenak, bai euskal jatorrikoak, bai erromantze-jatorrikoak. Euskal itxura osoko herri-izen mordoak ageri da hor, batez ere Arabako Lautadakoak. Goizetiko dokumentazioa izanik, toki-izenok euren zahar itxura osoa gorde dute; euron euskalduntasuna ageri-agerikoa da; are gehiago, sartaldeko hizkera-ezaugarriak ezagun dituzte. Toki-izenotariko hainbat Bizkaian aurkitzen diren berberak dira. Hara batzuk: *Bahaeztu* (Maeztu), *Gamarra*, *Luku*, *Hurizahar*, *Etsabarri*, *Zuhatzu*, *Arratzua*, *Hillarratzaha*, *Huribarri*, *Mendibil*, *Borinibar*, *Haberasturi*, *Gaztellu*, *Mengano*



18. Arabako onomastika eta euskara XVIII. mendean.

Goien, Hillardui, Hazpurua, Hurigurena, Erdongana, Zuiabarrutia, Basauri, Atauri, Urbillana.

Nafarroan bezala, goitzenek hemen ere aparteko interesa erakusten dute. Arabaren hegoaldera dagoen Bernedon, esaterako, XIV. mendeko kofradia-zerrenda bateko izenak ekarriko ditugu lekukotzat. Izenotariko batzuk abizen bihurtu dira: *Andia, Txipia, Baltza, Zalduna*. Beste asko, euren jabe zirenekin batera aldendu ziren: *Gizurra, Garimotxea, Motxo, Mingiña* (J. A. González Salazar).

Araban ere hiriburua gertatu zen gaztelar erromantzearen indar-gune eta zabaltzaile, inguruko lautada guztian euskara egiten zen bitartean. XVI. mendean Gasteiz elebidun zen: erromantzea gehiago egiten ei zen, baina euskara ere biztanleen hizkuntza arrunta zen. Aldi horretakoa dugu “Landuchioren hiztegia” deritzana (1562), hiriburuan orduan egiten zen euskararen lekuko. Erromantze-maileguz josiriko euskara zela ageri da.

Toponimiaren argitan, Araban euskara goizen galdu zuten eskualdeak eta erromantzea goizago beregandu zutenak ondoko hauek direla esan daiteke:

— Arabaren hego eta sartaldea: Errioxako Laguardia aldea, Bernedo, Antoñana eta Kanpezu. Dena den gorde dira *Zabala* lako euskal toki-izenak Laguardian bertan. Nafar erromantzeak ordezkatu zuen euskara hor.

— Hego-sartaldea: Valdegobia, Lantarón, Erribera Goia eta Behea batez ere, baina Trebiñuren eta Aialaren sartalde-bazterra ere bai. Gaztelar erromantzea sartu zen hor.

— Labastida Errioxakoa euskara eta erromantzearen (gaztelera) topagune izan zen.

Toponimian, euskal izenak nagusi dira, batez ere toponimia txikian, mikrotoponimia deritzanean, Nafarroan gertatzen den bezala. Etxe, larre, bide, oihan, mendi, zubi eta maila apaleko lekuei bertako biztanleek ematen dizkieten izenak erakusten dute hobeto zein hizkuntzaz mintzo ziren. Hala, Lagránen *Villaverde* eta Bernedon *Villafria* herri-izenak dira, baina bertako toki-izen txikiagoan, bertan hurrean, *Villaberdegana* edo *Villafrabide* ditugu. Toponimo nagusiak, lehenengoak, agian orduko administrazioak ipiniak dirateke, baina bigarrenok, duda barik, bertako biztanleek, nekazari edo artzainek.

Euskara galdu duten neurrian, hiltunek hemen ere itxura berria eman diete sarri euskal izen zaharrei. Hala, Bernedo aldean, XVIII. mendeko dokumentazioan ageri diren *Zubiaurre* eta *Bolinbide* izenak, *Zurrrable* eta *Bolimbire* bihurtu dira denborarekin.

Arabako mendialdea, “Montaña Alavesa”, deritzanean, Maeztu aldean, Bernedo partean baino beranduago galdu zela begi bistakoa da, euskarazko toki-izenak askoz trinkoago eta garbiago ageri direlako besteak beste. Maeztu aldeko izenak dira: *Basalau, Usasolo, Piparduia, Zokozarrate, Mendiandia, Basabarri, Solarte, Tellazar, Korresbidea*.

Arabako lurralderik gehienez, lautadan, euskarak atzerakadarik handiena XVIII. mendean izan zuen, datuen arabera. J. M. Barandiaranek argitaratu zuen aspaldi, Araban euskararen egoera 1787an zein zen argitzen duen dokumentu interesgarri bat Lorenzo Prestameroren (1733-1816) ondaretik hartua. Euskara dela-eta hau dio:

“Hablan el idioma bascongado muchos pueblos de la Vicaría de Vitoria, todos los de Gamboa, los mas de

la de Salvatierra, los de la de Mondragon, Cigoitia, Zuya, Orduña, Ayala, Orozco y Tudela, en los cuales a lo menos serian inutiles los Curas de concurso abierto, que ignorasen este idioma”.

XIX. mendean zehar aldendu zen euskara Aiarako konderri zaharretik eta Arabako lautadan Gasteizen ipar eta ekialdera dauden hurreko herritxoetatik. Laudion, oster, XIX. mendearen azken aldera arte bizirik iraun zuen. Bada hiri horretarako eginiko euskal dotrina bat, 1828an bertako abadeek inprimarazi zutena, eta 80ko hamarkadan berriro argitaratu zena. XIX. mendearen azken herenean euskara egiten zen oraindino, ez bakarrik Laudion, baita Murgian eta Larrea aldean ere.

XX. mendean lehen erdian joan zen galtzen euskara Gasteiztik iparraldera, Legutiorantz dauden herritxoetan. Hemengo herrietan eliz arduretan jardundako apaiz baten lekukotasunetik dakigu, esaterako, 1917an Nafarreten euskara egiten zela, Lukun helduek egiten zutela, eta Gamarran zaharrek.

Gaur egun Aramaion eta Oletan bizi-bizirik dago oraindik bertako euskara, eta Legution, Elosun eta beste herritxo batzuetan ere egiten da oraindik, gutxienak badira ere.

12.3. Euskara Errioxan eta Burgos iparraldean

Errioxa eta Burgosen iparraldeko lurretan toponimia ugaria dago euskal jatorrikoa. Han euskaldunak bizi izan ziren seinale da hau.

Auzi zaharra da euskara noiztikoa dugun alderdi horretan: ea erromatarren aurretik egiten zen ala errekonkistaren ondorioz zabaldu zen, goragotik hara

bizitzen joaniko euskal jendeak ekarrita. Kontua ilun dago, baina erromatarrek etorri aurretik paraje horretan euskara egiten zelako ustea dago gaur egun; badira horren zantzuak. Hala ere, errekonkistaren ondorengoak dira daturik seguruenak.

Errioxan, euskal toponimoak ugarien ageri dituen alderdia Ojacastroko ibarra dugu; hango herri batzuetan gaztelaniazkoa baino ugariagoa da euskal toponimia. Izan ere, Errioxa Goienean eta honen mugakide diren Burgos probintziako lurretan sustraituago egon zen euskara Erdi Aroan, Errioxaren erdi eta behealdean baino.

Gaztelarrek arabiarren kontra eginiko erasoen ondorioz libre geratu ziren lurraldeetara goialdeko jendea etorri zen bizitzen; Araba eta Bizkaikoa zela pentsa daiteke. Horri esker sendotu egingo zen euskararen presentzia libre geratutako lurrotan.

Baliteke lehen ere euskal izenak egotea lurralde horretan, zeren autrigoien leinu zaharraren lurra Errioxa Goien eta Burgoseraino heltzen baitziren. Den lez dela, ziur dakiguna da Erdi Arotik aurrera euskal izenok ugari azaltzen direla hor, toponimia nagusian ere bai, baina batez ere txikian. Euskal toki-izenik gehien Oja, Tirón eta Arlanzón ibaien ibarretan datza.

Toponimiaz eta osterantzean ditugun datuen ezaugarriek erakusten dute, horko euskara sartaldekoa zela, gaurko bizkaieraren taiukoa. Gonzalo de Berceoren *Milagros de Nuestra Señora* obran ageri den *Don Bildur* goitzenak ere sartaldeko euskara islatzen du.

12.3.1. Errioxa

Ebroz azpiko Errioxa Goienean diren toki-izenen artean, aipagarriak dira *-uri* osagaia dutenak, sartaldeko

horren 30eko hamarkadakoa da, jaun hori Gaztelako merino edo epaile nagusi zen aldikoa. Hala dio:


“De una fazanya de Don Morial Merino Mayor, et del Alcalde de Oia-Castro. Esto es por fazanya que el Alcalde de Oia-Castro mandó prender D. Morial, que era Merino de Castiella, porque juzgara que el ome de Oia-Castro, si le demandase ome de fuera de la Villa o de la Villa, que el recudiese en Bascuence. Et de si sopo Don Morial en verdad, que tal fuero habian los de Oia-Castro, e mandol dexar e dexaronle luego, e que juzgase su fuero”.

Ibarreko hiri nagusiko (Ojacastrro) eta beste herrietako biztanleek foruz onartua zuten eskubide hori. Mende horretan, hirian zein ibarreko beste herriotan euskara egiten zen seinale.

12.3.2. Burgos iparraldekoa

Errioxa Goienarekin muga egiten duen Burgosko lurraldean ere euskal jatorriko toponimia ugaria da, batez ere San Vicente, Juarros, Valdelaguna eta Burebaren goi partean. Ibar hauek Belorado, Salas de los Infantes eta Burgosko epaitegi-barrutiei dagozkien, eta guztiok Tirón, Oca eta Arlanzón ibaien goialdean kokaturik daude.

Errioxarekin mendiz muga egiten duten San Vicente eta Valdelagunako ibarren goi partea menditsuak dira eta euskal izenetan ugariak. Beheko lautadetan, oster, guda-gertaera ugari jasan zituzten lurraldeak izanik, euskal aztarrenak bakanago ageri dira. Inguruotan euskal toponimo asko daude oso aspaldikoak: Larrehederra, Gomenzubi, Otxaranna.



20. Burgos iparraldeko euskal toponimoak.

Denboraren aldetik, esan daiteke bai Errioxan eta bai Burgosen aldi bertsuan egiten zela euskara eta aldi bertsuan galdu ere. Batean eta bestean orografia menditsua izateak lagunduko zion euskarari luzaroago irauten.

12.4. Euskara Enkarterrian

Bizkaiko Enkarterriak historian zehar lotura estua izan du Bizkaiko gainerako lurraldearekin. Ibaizabalen ezker aldeko herriek, batez ere Barakaldo, Gordexola eta Gueñes inguruak, euskal toponimia aberatsa dute. Apur bat harago, Zalla, Galdames, Sestao eta Portugalete inguruan, euskal toponimoen kopurua oraindik ere handia da, baina ez hain trinkoa. Goi Enkarterrian, Karrantzako Ibarrean, badira zahar usaineko toki-izen batzuk, euskararen arrastoa dutenak. Eta apur bat haruntzago, erromantzea nagusi den eremuetara ere heltzen da euskal toponimiaren sustraia; hau da, Castro Urdiales, Asón ibaiaren ibarra eta Burgosko Mena Ibarrera.

Enkarterrien hegoaldea, Uribeko merindadea eta Arabako Okendo eta Artziniegako lurrak jotzen dagoena, askoz aberatsagoa da euskal toki-izenetan, baina eskualde honetatik urrundu ahala, gero eta bakanago bihurtzen da eta erromantzearena ugariago.

XVII. mendean, eta beranduago ere, Enkarterrien sartaldean euskara egiten zen. Agirien bidez dakigu esaterako, Bizkaiko Batzar Nagusietara Barakaldotik zetozen ordezkariak euskaldunak zirela.

XIX. mendean oraindino Galdames eta Gordexolan euskara egiten zen ezaugarriak badira. Sopuertatik sartalderantz askoz lehenago desagertuko zen, egin izan bada behintzat.

13. EUSKALDUNAK ERBESTEAN

Aspaldi zaharretik ibili dira euskaldunak urruneko lurretan, batzuk itsasgizon modura, beste batzuk emigrante lez. Eta euren lorratza ere utzi dute ibili diren lurretan; hizkuntza ez bada ere, bai behintzat toki-izenak, batzuetan ugariak.

Labrador Penintsulan eta Terranova islan (Kanada), non euskaldunak XVI. eta XVII. mendeetan ibili ziren baleatan, izen aztarren garbiak utzi zituzten: *Plazentia*, *Barratxoa*, etab. Mexikon ere lurralde bi bataiatu ziren euskal izenaz: *Nueva Navarra* eta *Nueva Vizcaya*. *Durango* izeneko hiri bana badira Mexikon eta Oregonen. Euskal jatorriko jende ugari hara joan bazen ere, gaztelania bihurtu zen kolonietako hizkuntza, eta euskararen arrastorik nekez gelditu zen.

XIX. mendean, batez ere karlistateen ondoren, eta XX. mendean zehar ere emigrazio mardula izango da Amerikarantz, bai Hego, bai Iparralderantz, eta diasporako euskaldunok lurralde haietan kokatuko dira. XIX. mendean Kuba, Uruguai, Argentina eta Txilera joango dira asko. XX. ean, 1936ko gudatearen ondoko erbestealdian, Venezuela, Kolonbia eta Mexikora lehengo herrialdeez gainera.

Euskarari eutsi zioten joan zirenek ez eze, hurrengo belaunaldiak ere, batez ere Ipar Ameriketara. Hirugarren belaunaldiak hizkuntza gal ez dezan, ikastolak ere eraiki dituzte. Renoko Unibertsitatean (Boiseko estatua, AEB) euskal hizkuntza eta historia ikasi eta ikertzeko katedra iraunkor bat ere sortu zuten 60ko hamarkadan, oraindik ere tinko dirauena, eta euskal biblioteca itzaltsu bat eraiki ere bai.

14. EUSKARA NORMALIZAZIO BIDEAN

Azken mendeotan herri-erakundeetan gaztelania eta frantsesa izan dira hizkuntza ofizialak, zein bere eremuan. Diputazio eta udaletan ere, batez ere XIX. mende-hasieratik aurrera euskara agiri esanguratsuetan erabili izan badute ere (beti ere maila apalean), gaztelania eta frantsesa izan dira administrazio-hizkuntzak. Pirinio peko Euskal Herrian, XIX. mendearen azken hamarkadetatik hasi ziren Foru Aldundiak euskara bultzatzen: euskara-katedrak sortu, argitalpenak diruz lagundu, funtzionarioen hizkuntza gaitasuna bermatu eta beste neurri batzuk bultzatuz.

Administrazioak bete ez duen papera Elizak bete du lurralde batzuetan euskararen gizarte-erabileran, batez ere XVIII eta XIX. mendeetan. Euskararen gizarteratze hori herri euskaldunetan egin du batez ere, predikuen bidez eta dotrina irakatsiaz. Ekintza hori, eliz ekimenez barik, elizgizonen gogoz eta erabakiz bete da gehiago. Horregatik beharbada, ez da berdina izan lurralde guztietan. Euskara egiten zen eremuetan erabili dute elizgizonek euskara gehiago. Lurraldeei dagokienez, Iparraldean, Gipuzkoan eta Bizkaian gehiago zaindu da; Nafarroan gutxiago.

XIX. mende-amaieratik aurrera euskarak eta euskal kulturak gizarte mailan berpizkunde handi bat ezagutu du, XX. mendean zehar, harik eta gudura arte sendo eutsiko diona. Euskal lore-jokoak, aldizkariak, egunkariak eta liburugintza izango dira berpizkunde horren ezaugarriak. Irakaskuntzan ere lehen urratsak emango dira.

1936ko euskal estatutuak, II Errepublikan onartu zenak, modu orokorrean onartzen zuen euskararen

ofizialkidetasuna, baina euskara egiten zen eskualdeetara bakarrik zuzendurik. Ez zuen, hala ere, garatzeko astirik izan: gudua galtzearekin orduko Euzkadiko Jaurilaritza erbestetua izan zen, egitasmo guztiak bertan behera gelditzen zirela.

1979an Euskal Autonomi Erkidegorako onartu zen Estatutuak, bere 6gn puntuan hau dio:

“6.art.-1. Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea”.

Eusko Legebiltzarrak Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legea (1982) onartu zuen geroago, hizkuntza ofizialkidetasun horren erabilera-mugak zehazten zituen.

Nafarroako Foru Errejimeneren Berrezartze eta Hobekuntza Legeak (1982), 9. atalburuan hau dio:

“9.art.-2. Euskarak ere hizkuntza ofizial-maila izango du Nafarroako eskualde euskaldunetan.

Foru lege batek eskualde horiek zehaztu, euskararen erabilpen ofiziala arautu eta Estatuko legeria orokorraren xedearen barruan, hizkuntza horren irakaskuntza ordenatuko du”.

Kasu honetan euskararen ofizialtasuna lurraldearen zati batera baino ez da hedatzen. Euskararen Foru Legeak (1986) Nafarroako lurraldea hiru partetan banatzen du: euskalduna, bitarikoa eta ez-euskalduna. Banaketa horren arabera, hizkuntza-eskubideen onartze maila diferentea da parte bakoitzean.

Pirinioez iparraldera, Frantziako estatuan, euskara ez da hizkuntza ofiziala. Agindu berezi batzuen bidez, “erregio-hizkuntza” deritzen hauei hezkuntza sisteman ikastordu jakin batzuk onartzen zaizkie soilik. Giza- eta diru-baliabidez, hala ere, ez dute eskubideok behar adinako bermerik.

Euskara, Euskal Autonomi Erkidegoan derrigorrezko hizkuntza da irakaskuntza sistemako mailetan. Hautatzen den ereduaren arabera, trinkotasun gehiagok edo gutxiagok ikasten da. Euskara hutseko erdua (D) nagusitzen doa denborak aurrera egin ahala.

Goi irakaskuntzan ere, unibertsitatekoan, sartu da euskara. Euskal Filologia adarrak irakasten dira unibertsitateetan. Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU) euskaraz osorik ematen diren lizentziaturak ere gero eta ugariagoak dira. Unibertsitate Irakasle Eskola batzuk ere badira, irakasleen prestakuntza, eta berariaz euskarakoena, hobetzera zuzenduak.

Hedabideetan euskarak duen presentzia ere sendotu da autonomi estatutua abian dagoenetik. Ikus-entzunezko hedabideetan (irradi, telebista), egunkarietan, aldizkarietan, aldizkari digitaletan, liburugintzan... euskara normalizazio bidean jarri da.

Lan munduan, herri-administrazioan egin da ahaleginik handiena euskararen ofizialtasuna bermatzeko. Enpresa munduan eta justizia administrazioan ere geldiro-geldiro gorantz doa euskararen erabilera.

Euskararen geografia-banakuntza lausotu egin da azken aldiotan. Biztanleen mugikortasunari, etorkinen kopuru handiari eta euskal irakaskuntzaren hedakuntzari zor zaio fenomeno hau, batez ere. Euskarak, lehen egiten ez zen lekuetan ere presentzia du; irakaskuntza bidez batez

ere. Baina bestetik, oraintsura arte euskaldun oso izan diren eskualdeetan erdara askoz sartuago dago gaur.

Hedabideen eragina gehitu egin da lurralde osoan (telebista, irradi, egunkari eta internet). Tresna berriotan euskararen presentzia indartu bada ere, erdarazkoena askoz gehiago eta bitarteko handiagok. Gaztelania edo frantsesa bazterrik ezkutuenetara heltzen dira gaur egun; eta gero eta gehiago ingelesa.

Tradiziozko elebitasunak modu berriak hartu ditu gaur. Eleaniztasuna indartzen doa. Hitzunek, euren hizkuntzaz eta ingurukoez gainera, kanpo hizkuntzak ere, batez ere ingelesa, ezagunago dituzte.



Puiscamus
Orauerimus
Dedecum nra m

BIBLIOGRAFIA

- APAT-ETXEABARNE, ÁNGEL. *Una geografía diacrónica del euskara en Navarra*. Iruña: Ediciones y Libros, 1974, eta geurea.
- ASKOREN ARTEAN. *Geografía histórica de la lengua vasca*, I eta II. Zarautz: Itxaropena, 1960. (Auñamendi Bilduma 13, 14.)
- ALLIÈRES, JACQUES. *Los vascos*. Madril: Edaf, 1978.
- CARO BAROJA, JULIO. “Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina” in *Acta Salmanticensia*, I. Salamanca: Universidad de Salamanca, 1945-46. (Argitaraldi berezia.)
- CAVALLI-SFORZA, LUIGI LUCA. “Genes, pueblos y lenguas” in *Investigación y Ciencia*, 184 zk. Bartzelona: Prensa Científica, 1992, 4-11 or.
- GONZÁLEZ SALAZAR, JOSÉ ANTONIO. “El euskera en la onomástica alavesa” in *Okoa*, I. Vitoria-Gasteiz: Okoa Kultur Elkartea, 1994, 26-27 or.
- GRATACOS, ISAURE. *Fées et gestes: femmes pyrénéennes, un statut social exceptionnel en Europe*. Toulouse: Privat, 1987.
- HUMBOLDT, WILHELM VON. *Primitivos pobladores de España y lengua vasca*. Madril: Minotauro, 1959.
- INTXAUSTI, JOSEBA. *Euskara, euskaldunon hizkuntza*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia (EJAZN), 1990.
- IRIGOIEN, ALFONSO. *En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1996.
- JIMENO JURÍO, JOSÉ MARÍA. *Navarra. Historia del euskera*. Tafalla: Txalaparta, 1997.
- LACASTA, GARTZEN. “El euskera en el Alto Aragón” in *Cuadernos de sección. Hizkuntza eta Literatura*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1994, 141-278 or.
- LAFON, RENÉ. “La langue basque” in *Bulletin du Musée basque*. Baiona: Musée Basque de Bayonne, 1973, 58-120 or.
- MERINO URRUTIA, JOSÉ J. BAUTISTA. *El vascuence en La Rioja y Burgos*. Donostia: Biblioteca Vascongada de los Amigos del País (BVAP), 1962. (2. argit.)
- MITXELENA, KOLDO. *La lengua vasca*. Durango: Leopoldo Zugaza editorea, 1977.
- . *Sobre historia de la lengua vasca*, I eta II. Donostia: Seminario de Filología Vasca “Julio Urquijo” (ASJU), 1988.
- ORPUSTAN, JEAN-BAPTISTE. *La langue basque au moyen age (IX^e-XV^e siècles)*. Baigorri: Izpegi Edizioak, 1999.
- RENFREW, COLIN. *La cuestión de los orígenes indoeuropeos. Arqueología y lenguaje*. Bartzelona: Crítica, 1990.
- ROHLFS, GERHARD. *Estudios sobre el léxico románico*. Madril: Gredos, 1979.
- . *Diccionario dialectal del Pirineo aragonés*. Zaragoza: Diputación Provincial-Institución “Fernando el Católico”, 1985.
- SEGURA, SANTIAGO eta ETXEBARRIA, JUAN MANUEL. *Del latín al euskara. Latinetik euskarara*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1996.
- TOVAR, ANTONIO. *La lengua vasca*. Donostia: Biblioteca Vascongada de los Amigos del País (BVAP), 1950.
- . *El euskera y sus parientes*. Madril: Minotauro, 1959.
- TRASK, ROBERT LAWRENCE. *The history of basque*. London-New York: Routledge, 1997.



ILUSTRAZIOEN ITURRIAK

1. GRAMKRELIDZE, THOMAS V. eta IVANOV, VJACESLAV V. “La protohistoria de las lenguas indoeuropeas” in *Investigación y Ciencia*, 164 zk. Bartzelona: Prensa Científica, 1990, 81 or., eta geurea.
2. RENFREW, COLIN. “Orígenes de las lenguas indoeuropeas” in *Investigación y Ciencia*, 159 zk. Bartzelona: Prensa Científica, 1989, 84 or., eta geurea.
3. RENFREW, COLIN. “Diversidad lingüística del mundo” in *Investigación y Ciencia*, 210 zk. Bartzelona: Prensa Científica, 1994, 19 or., eta geurea.
4. MITXELENA, KOLDO. *La lengua vasca*. Durango: Leopoldo Zugaza editorea, 1977, 77 or.
5. TOVAR, ANTONIO. *La lengua vasca*. Donostia: Biblioteca Vascongada de los Amigos del País (BVAP), 1950, 18 or.
6. MITXELENA, *La lengua vasca*, aip. lib., 56 or.
7. Geurea.
8. INTXAUSTI, JOSEBA. *Euskara, euskaldunon hizkuntza*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia (EJAZN), 1990, 48 or.
9. INTXAUSTI, *Euskara, euskaldunon hizkuntza*, aip. lib., 46 or.
10. CARO BAROJA, JULIO. “Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina” in *Acta Salmanticensia*, I. Salamanca: Universidad de Salamanca, 1945-46, VIII. mapa. (Argitaraldi berezia.)
11. MONREAL, GREGORIO. *Las instituciones públicas del Señorío de Vizcaya (hasta el siglo XVIII)*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 1974, eta geurea.
12. ASKOREN ARTEAN. *Geografía histórica de la lengua vasca*, II. Zarautz: Itxaropena, 1960. (Añamendi Bilduma 14.)
13. INTXAUSTI, *Euskara, euskaldunon hizkuntza*, aip. lib., 32 or.
14. MITXELENA, *La lengua vasca*, aip. lib.
15. Geurea. Luis Manuel Peña Cerrok eginiko irudia.
16. *Glosas Emilianenses*. Madril: Ministerio de Educación y Ciencia, 1977, 67 atz. eta 68 atz. or., eta geurea.
17. APAT-ETXEABARNE, ÁNGEL. *Una geografía diacrónica del euskara en Navarra*. Iruña: Ediciones y Libros, 1974, eta geurea.
18. GONZÁLEZ SALAZAR, JOSÉ ANTONIO. “El euskera en la onomástica alavesa” in *Okoa*, I. Vitoria-Gasteiz: Okoa Kultur Elkartea, 1994, 27 or., eta geurea.
- 19 eta 20. MERINO URRUTIA, JOSÉ J. BAUTISTA. *El vascuence en La Rioja y Burgos*. Donostia: Biblioteca Vascongada de los Amigos del País (BVAP), 1962. (2. argit.)

